



GIZARTE TXOSTENA

*(2007ko abenduaren 1ean eta 2an egindako
V. Batzar Nagusian onetsitakoa)*

AURKIBIDEA

Orr.

| | |
|---|-----------|
| HITZAURREA | 1 |
| SARRERA | 2 |
| I.- GIZARTE EKINTZA | 4 |
| 1.- Gizarte-errealitate berriak | 4 |
| 2.- EAJren gizarte-eredua | 5 |
| 3.- Gizarte-politikan jarduteko printzipioak eta baloreak | 8 |
| 4.- Eremu instituzionala | 12 |
| 5.- Ekintza-arloak | 14 |
| 5.1.- Familia | 14 |
| 5.2.- Babesik gabeko egoeran dauden emakumeak..... | 17 |
| 5.3.- Haurtzaroa eta Nerabezaroa | 19 |
| 5.4.- Autonomia pertsonala sustatzea..... | 23 |
| 5.5.- Inmigrazioa | 33 |
| 5.6.- Etxebizitza | 36 |
| 5.7.- Hirugarren sektorea | 40 |
| 6.- Finantzaketa | 42 |
| II.- GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA | 44 |
| 1.- Sarrera | 44 |
| 2.- Emakumea, berdintasuna eta gizarte-kapitala | 45 |
| 2.1.- Emakumeen eta gizonen parte-hartze parekatua erabaki-arloetan.... | 47 |
| 2.2.- Berdintasuna hazkunde ekonomikorako, gizarateratzerako eta egonkortasun politikorako funtsezko elementu gisa | 48 |
| 2.3.- Gizarte osoaren aliantza eraikitzea, gizonena eta emakumeena | 50 |

Orr.

| | |
|--|-----------|
| III.- GIZARTE-MUGIMENDU BERRIAK ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA | 52 |
| 1.- Gizarte-mugimendu berriak | 52 |
| 1.1.- Agertzen ari den errealitate berria | 52 |
| 1.2.- EAJren parte-hartzea gizarte-errealitate berrietan..... | 53 |
| 2.- Garapenerako lankidetzaren | 53 |
| 2.1.- Sarrera..... | 53 |
| 2.2.- Garapenerako lankidetzaren eredu propioa..... | 55 |

HITZAURREA

“Gizarteari dagozkion gaiak”, Txosten honen ekintza-eremuak, printzipioz gobernuekin zerikusia duten berbanaketa-politikekin du zerikusia, bitarteko publikoak interes orokorrari zuzentzen dizkioten politikekin.

Horregatik, sistema orokor honen barruan egongo lirateke gizarte-segurtasunerako politikak, osasun-politikak eta hezkuntza-politikak bezalakoak, baita haien zabaltasun eta zehaztasunagatik arreta berezia behar duten politikak ere.

Terminoaren garrantziaz jabeturik, baina dagoeneko lantzen ari garen espazio bat sakontzeari uko egin gabe, Txosten honek EAJren jarrera argitu nahi du aurrerantzean garatu beharko diren eta “gizarteari dagozkion gaiak” izeneko definizio zabalaren barruan dauden gaiei buruz.

SARRERA

Abertzaletasuna XVIII. mendearen amaieran sortu zen, eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen eskaerari erantzuteko, garaiko botere-eredu autoritario eta zentralistari oposaturik.

XIX. mendean zehar, autodeterminazio- eta sorospidetasun-kontzeptuek indar berria hartu zuten, egitura politikoetan aldaketa handiak gertatu zirelarik –banakoaren eskubideak eta taldearen eskubideak aldarrikatzea, bai pertsonena bai nazioena–.

EAJ nazioarteko testuinguru horretan sortu zen, askapen nazionalerako xede politikoak eta garapen ekonomikoko, egituraketa sozialeko eta berrindartze kulturalerako politikak bateratuz. EAJren ezaugarria, beraz, eraberritzearen, eraldaketa sozialaren eta bizitzaren ikuspuntu aurrerakoia da.

EAJren proiektua soilik demokraziaren etengabeko eskakizunen ikuspuntutik uler daiteke, historiako une bakoitzak behar dituen helburu eta estrategiekin, irmo defendatuz instituzioak eta ideologiak pertsonen zerbitzuan ipinitako tresnak direla. Horretarako, haren xede bakarra herritarren askatasun indibiduala onartu, aldarrikatu eta onartzen duen askatasun nazionala da, etengabeko eskubidea izanik iritzia emateko, antolatze eta xede duen eredu sozialaren garapenean parte hartzeko.

Horretarako, etorkizunera begira eta bizitzaren ikuspegi humanistaren ikuspuntutik lan egiten du, eta historiaren une bakoitzak sortzen dituen erronkak gainditzen laguntzen duten ekintza politikoko estrategiak garatzen ditu.

Bokazio humanista honek Giza-Eskubideen Deklarazio Unibertsala du oinarritzat, eta honek honela dio 1. artikuluan: “Gizaki guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berak dituzte, eta, arrazoimena eta kontzientzia dutenez, elkarrekiko senide-jokaera izan behar dute”.

Praktikan, EAJren gizarte-politikek ondoko helburuak dituzte:

- Giza-eskubideak defendatzea.
- Pertsonen duintasuna defendatzea, haien egoera edozein dela ere.
- Justizia soziala eta elkartasuna sustatzea.

Giza-eskubideak defendatzea eta sustatzea gizarte aske eta moderno orok komunean duen helburua da, eta haien legeetara gehitu zituzten. Hala eta guztiz ere, eskubide horiek garatzea, aplikatzea eta zabaltzea da gizartearen ulerkera eta antolaketa, herritarren arteko harremanak ezberdintzeko modua.

Herritarren jardute osoa eskubide zibil, politiko eta sozialek baldintzatzen dute. EAJrentzat, eskubide sozialak herritartasun kontzeptuarekin lotzea funtsezkoa da haren ekintza politikorako, eta horrela gainditzen da kontzeptu liberala, zeinaren arabera soilik eskubide zibilak eta politikoak kontuan hartzen ziren.

Gizarte-Eskubideen helburua gizaki berdinen arteko ezberdintasunak gutxitzea da –inolako ezberdintasunik egin gabe– duintasunaren, eskubideen eta betebeharren esparruan.

Gizarte-politika aktiboak beharrezkoak dira herritartasuna bermatzeko, hainbat gizaki bazterrean uztea saihesteko. Horiek lan-merkatuan normaltasunez aritzeko zailtasuna duten pertsonak dira, edo herritartasunaren eskubideez normaltasunez gozatzeko aukera gutxiago duten pertsonak. Egoera horietako asko ingurune fisiko eta sozialaren ondorio dira, eta ez norbanakoaren baldintzen ondorio; beraz, oinarritzko zeregina da pertsona guztien bizitza errazten duten ingurune barneratzaileak sortzea.

Gaur egun, globalizazioak ekarri dituen erronka berrien aurrean gaude; horregatik, euskal eraikuntza-proiektu nazionalak zabalik egon behar du eta bere gain hartu behar ditu gizarte-errealitate berriak, eta horiek integratu.

Errealitate honen aurrean, belaunaldi bakoitzari dagokion erantzukizunetik abiatuta eta antzinako ospeen kontura ezin dela bizi jakinda, ezta gaur egungo bertuteen onuren kontura ere, EAJk politikak garatzen jarraitzeko asmoa dauka, horien bidez euskal herritarrak euskal proiektu handi baten zati senti daitezen, haien bizitzako proiektu pertsonalei erantzuten dion proiektu baten zati, zilegi den ongizate- eta autoerrealizazio-nahia gauzatzeko.

Baina ideologiek eraginkorrak diren neurrian balio baldin badute, euskal abertzaletasunak lanean jarraitu beharko du Euskal Herria osatzen duten guztiak proiektu nazionalaren zati senti daitezen; edozein errealitate baztertzailerik, gutxieneko ongizate-baldintzetatik kanpora dagoen edozein pertsona edo talde, haien proiektu pertsonala bete ezin duen edozein taldek laguntzarik ez jasotzeak, benetako porrota erakusten du ikuspuntu nazionaletik.

Gaur egun Euzkadik ongizate-maila altuak lortu ditu herrien arteko ezberdintasunak oso handiak izaten jarraitzen duten mundu batean. EAJk gogoeta egin behar du eta bere diskurtsoa eta eragin politikoa egokitu, Euzkadiren barruan errealitate berriek sortzen dituzten arazoei erantzuna emateko: Gizarte Ekintza eta Garapenerako Lankidetzak.

I.- GIZARTE EKINTZA

1.- GIZARTE-ERREALITATE BERRIAK

Euskal gizarteak, gizarte aurreratu gehienek bezala, bilakaera eta eraldaketa esanguratsuak bizi izan ditu azken urteotan.

Alderdi demografikoez gain, gizarte-errealitatearen eta kulturalaren eraldaketa eta bilakaera ere badago, eta hori kontuan hartzekoa da.

2015eko etorkizun hurbilean, gure inguruko gizarteetan ezagutzen dituzten eta normalak diren hiru gertakizun jazoko dira; gertakizun horiek era erabakigarrian baldintzatuko dituzte herritarren eskaerak eta eskaera horiek betetzeko gizarte-politikak: populazioaren zahartzea, familiak jasaten ari diren aldaketak eta prozesu migratzaileak.

XX. mendean euskal gizartea bikoiztu egin zen, baina hazkunde hori mendearen azken hamarkadan gertatu zen. Hazkunde hori eta 70eko hamarkadara arte hazten jarraitu zuen industriarako lanekuaren eskaera neurri berekoak izan ziren; eta hazkundea urte horietatik aurrera gelditu zen, ondoren gertatu ziren krisi industrialen eraginez.

Oinarrizko hiru faktorek laburbiltzen dute gaur egungo egoera demografikoa:

- Jaiotza-tasa baxua.
- Bizi-itxaropena haztea.
- Inmigrazioa. Gure Herrian bizi den atzerritar-kopuruak Europako beste eskualdeetan bizi den kopuruarekin zerikusirik ez badu ere, inmigratio-tasek igoera handia izan dute azken urteotan.

2006. urteari dagozkion datuak ikusita gizartea zertxobait gaztetu bada ere – etorkinen eraginez eta jaiotza-tasa hobetu delako–, egoera demografikoa oso ezberdina da azken hamarkadetan izandakoarekin alderatuta.

Europako Batzordeak dioenez, *“argi izan behar dugu: datozen hamabost edo hogeitun urteetan, Europak atzerriko emigrazio handia jasotzen jarraituko du”*. Azken finean, atzerriko inmigrazioa funtsezko alderdia da eta izango da epe motz eta ertainean, bai ikuspuntu demografikotik bai ekonomikotik, politikotik eta sozialetik. Beraz, hari heltzeko moduak gure gizartearen etorkizuna nabarmen baldintzatuko du.

Lanerako proposamenak sortzeko analisisia egiteko orduan kontuan hartu behar den beste gai bat azken urteotan gizartearen eta familiaren kulturari jazo den aldaketa da.

Familiak, gizartean kohesioa eta erreferentzia izateko funtsezko elementu gisa, aldaketa garrantzitsuak izan ditu. Euskal Herrian familiak gizarte-antolamenduaren elementu nagusia izaten jarraitzen du, baita kideen heziketan, sozializazioan eta laguntzan ere; aldatzen dena familiaren kontzeptua da, kideen kopurua, bakoitzaren eginkizuna eta eginkizun tradizionalak betetzeko gaitasuna. Familiaren egitura ez da soilik kideen kopuruan murriztu, baizik eta familia-eredu ezberdinak agertu dira, eredu tradizionalaz gain: guraso bakarrekoak, izatezko bikoteak, sexu bereko bikoteak, etab., eta mapa zabalagoa eta ezberdina sortu dute.

Emakumeak era masiboan ari dira lan-merkatuan sartzen, eta familiaren barnean funtzioen birbanaketarik ez da gertatu; familiak gero eta seme-alaba gutxiago dituzte eta gero eta beranduago izaten dituzte. Ez daukate lehen zeukaten aukera mendekotasun-egoeran dauden kideak zaintzeko (adin txikikoak zein nagusiak), eta giza-, gizarte- eta hezkuntza-baliabide gehiago eskatzen dituzte familia-, gizarte- eta lan-bizitza bateratzeko. Borondatezko jardueretan duten parte-hartzea ere txikitu egin da, gizartean parte hartzeko modu gisa; bestalde, aisialdiarekin lotutako ekintzen eskaera goraka doa.

Gizartea, erakundeak, administrazioa dira horri erantzuna eman behar diotenak, zerbitzu eta laguntzen bidez, orain arte familiak eta bolondresak betetzen zuten lana eginez. Funtsean, gizarte osoak dauka erantzukizuna egoera zaugarrian dauden pertsonak eta haien eskubide sozialak babesteko.

2.- EAJ-ren GIZARTE-EREDUA

EAJren gizarte-txostenak erantzuna eman nahi die XXI. mendeko gizarteak sortzen dizkigun erronkei, ikuspuntu humanista batetik, eta pertsona guztiak politikaren erdigunean ezarri, haien beharrak ezagutzeko eta berme guztiak erantzuna eman ahal izateko.

Pertsonak garatzeko, lan egiteko eta esplotaziorik gabe soldata irabazteko gai diren gizartea nahi dugu; gerta daitezkeen zaurkotasun-egoerak leuntzeko prebentzio- eta babes-neurriak hartzea ahalbidetzen duen gizartea.

XXI. mende honetan errealtate, arrisku eta aukera berrien aurrean gaude, eta hori gizarte-eredu batean gertatutako aldaketa ekonomiko, politiko eta sozialen emaitza da. Gertakari hauen artean ondorengoak nabarmendu ditzakegu:

- Globalizazio ekonomikoaren prozesua, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek bultzatua, ezagutzaren gizartea hastea ahalbidetu duena.
- Migrazio-mugimendu, aukerak eta gatazka berriak, kultura asko dituen gizartean.
- Lan-baldintzen malgutasuna eta behin-behinekotasuna.
- Pertsonen bizi-itzaropena handitzea eta gure gizartean belaunaldi-egitura birmoldatzea.
- Gizonen eta emakumeen eginkizun berriak, eta familia- eta bizikidetzaredu berriak.
- Bizi-mailan jazotako hobekuntzek ondorioztat izan dezakete jokabide kontsumisten balioak, balio ez-solidarioak eta balio pasiboak zabaltzea, asetzearen kultura deitutakoaren adierazgarri. Horiez gain, bizi-jarduerak gehiago banakatzea eragin dezakete, baita gizartearen zatikatzea eta polarizazioa ere. Horri arriskuaren gizartea deritzo.

Hauek dira XXI. mende hasiera honetan edozein gizarte-politikaren testuinguru orokorrean jazotzen diren gertaerak. Ingurune hurbilago batean, aipatutakoaz gain, ondorengo ere aipatu beharko genuke:

- Gizarte-zerbitzuen sistemaren gaztetasuna eta arauen gabezia.
- Gure herriaren aniztasun instituzionala eta politikoa.
- Gure gizarte-zerbitzuen eremuan, gizarte-ekimenaren tradizioa eta indar handia.

Gizarte honetako familien aldaketek, elkarbizitza-unitateen aldaketek, elkarte lokalen aldaketek eta bizimoduaren aldaketek eragiten dute politika publikoen aldetik erantzun egokiak behar izatea edo nahi izatea, pertsonen trebezia autonomoa edo gizarteratzea bultzatzeko; hori, kualitatiboki eta kuantitatiboki, aurreko garaian gertatzen zenaren ezberdina da.

EAJk zerbitzu sozialen indartze- eta onartze-politika bultzatuko du, eremu horretan erantzukizun publikoan sakontzeko, eskubideak bermatuta izateko eta, oro har, pertsona guztiei kalitatezko gizarte-zerbitzuak eskaintzeko.

EAJk egiten duen ekintza politikoaren barnean, pertsona guztiak gure jokabidearen ardatza dira eta izango dira. Horregatik, EAJk kohesionatutako eta egituratutako Euzkadi baten alde jarraituko du lanean, laguntzeko balio duten familia-egituren bidez eta egitura sozialen eta lokalen bidez.

Eta hemen beharrezkoa da gizarte-eredu bat defendatzea, non familia oinarrizko euskarria izango den eta beste era bateko euskarriekin batera jardungo duen. Baina lan- eta familia-bizitza bateragarri egiten zuen familia-eredua krisian sartu da; beraz, beharrezkoa da sortzen diren behar berriei erantzuna ematea, familiei laguntzeko dauden politiken aldetik.

Gure ongizate-sistema gizarte batentzat zegoen pentsatua, non egitura komunitarioek eta familiarrek (eta, horien barnean, funtsean, emakumeek) laguntza informal handia eskainiko zieten pertsoneri, sistema formala bizitza-zikloan aurreikustea posible zen (hezkuntza, erretreta) hainbat gertakizun edo egoerez arduratzen zen bitartean, edo ezohikoak ziren egoerez (gaixotasunak, langabezia).

Bizi garen gizartea, hala eta guztiz ere, dagoeneko ez da zehaztapen horien araberakoa, eta horrek behartzen gaitu gizarte-politika, eredia eta oinarri kulturalak berriz egituratzera, ongizate-sistemak garatzeko orduan beste aukera batzuk eskaintzeko.

Gizarte-sistemen xedea pertsonen trebezia autonomoa eta gizarteratzea erraztea da. Horregatik, guztiok izan gaitezke hartzaileak. Beraz, eskubideak eta betebeharrak ditugu. Mendekotasun-, babes gabeko, behar-, bazterte-, esplotazio-egoeretan babesa jasotzeko eskubidea. Eta gizarteratzeko prozesuak laguntzeko betebeharra, gizarteak eskaintzen dituen baliabideak egoki erabiliz.

EAJren gizarte-txosten honek aldaketa kulturala eskaini nahi du, ongizate-sistema publikoaren arteko eta familia- eta komunitate-egituren arteko elkar ulertzean oinarrituta. Gizarte-babes publikoa zabaltzea eta indartzea beharrezkoa da, baina, aldi berean, beharrezkoa da lehenik eta behin gure seme-alaben, gurasoen, bizilagunen zainketaz arduratzeko beharra aldarrikatzea, eta bigarrenik erantzukizun familiarra, soziala eta publikoa antolatzeke era berriak eta integratzaileagoak bilatzea.

Filosofia honetan oinarritua, EAJk gizarte-zerbitzuetan pentsatzen du, berme publiko malgukoak, abegitsuak, proaktiboak, familia- eta gizarte-egituretatik gertukoak. Gizarte-zerbitzu publiko, erakargarri eta eraginkorrak, pertsonen, familien eta taldeen aniztasuna asetzeko. Hedadura bikoitza daukan gizarte-politika: familiarentzako laguntza zuzena eta familia-ikuspegia gainerako politika publikoen baitan kontuan hartzea, zeharkako elementu gisa.

Honek esan nahi du:

- Funtzionaltasun gehiago, pertsonen arteko justizia gehiago, elkarbizitza-unitatean barne- eta kanpo-elkartasun handiagoa daukaten ekintzak babestea.
- Familiaren eskubideak kontuan hartzea, ez bakarrik banakoaren eskubideak babestuz eta sustatuz, baizik eta baita familiaren eskubideak ere, gizarte-subjektu gisa hartuz.

- o Familia ondasun komunekoa, erlaziozkoa, dela onartzea, banakoei eskubide eta betebeharrak gehiago ematen dizkiona.

Testuinguru honetan, EAJk gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboaren onarpena babesten du, hau da, eskubide osoa, derrigorrezko zerbitzu publikoen katalogoan zehaztuko dena eta eskatu ahal izango dena.

Labur esanda, EAJn aberastasuna sortzen duen eta gero banatzen duen gizartearen alde gaude; inor bazterrean uzten ez duen aurrerapenaren alde; elkartasunezko hazkunde ekonomikoaren alde; askatasuna, berdintasuna, justizia soziala eta elkartasuna oinarri dituen merkatu-ekonomia sozialaren alde. Banakoaren eta guztien ongizatea lortzeko beharrezkoa da gizarte-bazterketaren aurka eta diskriminazioaren aurka egitea, eta gizarte-justizia eta -babesa sustatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, belaunaldien arteko elkartasuna sustatzea eta pertsonen eskubideak babestea.

Gizarte-zerbitzuak garatzeak ere aberastasuna sortzen du; izan ere, gizarte-gastuaren zati handi bat gizartera itzultzen da, lana eta aberastasuna sortzen duten jardueraz ari baikara.

EAJren parte-hartze publikoak hurbiltasunezkoa izan behar du, familiei haien eginbeharrak betetzeko behar dituzten laguntzak emateko, oinarri etiko eta gizarte-oinarri indartsuekin. Garapen ekonomikoak gizartearen zerbitzurako izan behar du. Hurbiltasunezko eta sinergiazko modu eta mekanismo berriak bilatu behar dira parte-hartze publikoen eta gizarte-ekimenaren artean, gizarte bidezkoa, aktiboa, partehartzailea eta solidarioa eraikitzeko.

3.- GIZARTE-POLITIKAN JARDUTEKO PRINTZIPIOAK ETA BALOREAK

Bere tradizio humanistaren printzipioak ezagututa, EAJrentzat ezin utzizkoa da gizarte-eskubideen gaia herritartasunaren kontzeptuan. Era horretan, soilik eskubide zibilak eta politikoak kontuan hartzen dituzten kontzeptu liberalak gaindituko lirateke.

Duintasuna. Pertsona ororen berezko balioa da, guztiok baitugu eskubidea edozein egoera fisiko, mental edo sozialarekiko independentzia izateko, egoeraren arabera edo egituraren arabera.

Gizakiaren duintasuna gurekin batera datorren balioa da, ezin da eman edo kendu. Baldintzarik gabeko begirune osoa eskatzeko modu bat da, eta gizaki guztiek izan behar dute, haien egoera edozein dela ere.

Giza-duintasuna, beraz, oinarri funtsezkoa eta objektiboa izango da ekintza politikoan oro har eta gizarte-politikan bereziki.

Elkartasuna. EAJren jokabide politikoa oinarritzeko beste balioa elkartasuna da, gizarte-ekintzaren eremuan.

Elkartasuna pertsonen naturan beran dago. Gizakiarengan jaiotzen den printzipioa da eta gizakiarengana dago bideratua. Gizartean elkarbizitzeko eskakizuna da. Elkartasuna, zentzu hertsian, justiziazko harremana da, berdintasunean oinarritutako gizakien arteko harremana, eta justizian dauka sorburua. Berdintasun hau gizakiaren benetako duintasunean dauka sorburua.

Beraz, elkartasuna gizarte-politiken printzipio egiaztagarria da, eta pertsonen duintasuna ezbaian dagoenean hura babesteko joera du, pertsona bat ahulagoa denean adina dela eta, gaixotasuna dela eta, ezintasuna dela eta, gizarte-bazterketa dela eta, etab. Gizarte solidario batek herritar guztien ongizatea lortu behar du.

EAJrentzat elkartasunak berekin batera dakar banatutako erantzukizuna, guztion betebeharra. Horregatik, administrazio publikoetatik, gobernuaren ekintzetatik, beharrezkoa da politika sektoriala eta zeharkakotasunezkoa sustatzea, gizarte-erlazioak bermatzeko eta arrazoi ezberdinengatik ahultasun-egoeran dauden pertsonak aurrerapenetik eta garapenetik kanpo ez uzteko.

Gizarte-politika aurrerakoietan aritzeko baliabide asko behar dira; horregatik, gizarte baten elkartasuna bere sistema fiskalean islatu behar da, eta gure aldetik ahalegin guztiak egingo ditugu sistema hori aurrerakoia eta birbanatzailea izan dadin. Herritarren ekarpen ezargarria elkartasunezko ekintzaren eta justizia banatzailearen isla da. Herritar guztiek haien jarrera eta borondatea eman behar dituzte gizarte osoa garatu dadin, eta gizarte hori berau osatzen dugun pertsona guztion ondasun bihurtu behar da.

Erantzukizun publikoa gizarte-babeseko sistema bat osatzeko. Erantzukizun publikoa herritarren eskubidearen berme gisa gizarte-zerbitzuen sistema izateko, finantza-, teknika- eta giza-baliabide nahiko edukita, ondo funtzionatzeko eta premiarik handiena duten beharrei lehentasuna emateko. Erantzukizun publikoa laguntzak, zerbitzuak eta baliabideak behar diren eginkizunetarako bideratzen direla kontrolatzeko, era horretan gizarte-babeseko sistemetan gehiegikeriak eta iruzurrak saihesteko.

Zerbitzuaren erantzukizun publikoa kudeaketa zuzenaren zein zeharkakoaren bidez gauzatu daiteke. Edozein kasutan, zerbitzuen arautzeak eta ikuskatzeak beti egon beharko dute eremu publikoan, sistemari homogeneotasuna emateko, eta herritarrak hautatu duen kudeaketa-sistema edozein dela ere, kalitatezko zerbitzua bermatzeko.

Gizarte-zerbitzuen **orokortasuna**. Azken hamarkadetan, eta Ongizatearen Estatua sendotuz eta gizarte-zerbitzuak garatzen zihoazen neurrian, gizarte-zerbitzuek izaera orokorra hartuz joan dira. Pertsona guztiek, haien egoera edozein dela ere, baliabideak, laguntzak eta erantzukizun publikoko zerbitzuak baliatzeko eskubidea dute, bizitza normala, duina eta osoa errazteko.

Aukera berdintasuna. Gizarte-zerbitzuek berdinak izan behar dute pertsona guztientzat, bazterketarik gabe. Are gehiago, haien izaera eta jasoko duten pertsonen izaera kontuan izanik (mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, pertsona ahulak, bazterketa-arriskua, etab.), beharrezkoa da neurri positiboak eta proaktiboak hartzea, talde horiei begira. Era berean, berdintasunak zerbitzuen lurraldekako banaketa egokia eskatzen du, pertsona guztientzat eskuragarri egon daitezen, bizi diren lekuan bizi direla. Teknologia berriak garatzea ere beharrezkoa da, inor ez dadin informazioa lortzeko modurik gabe geratu.

I+G+B. Etengabeko hobekuntza, ikerketa, garapena eta berrikuntza gizarte-arretaren eremuan erabili behar dira, horrela etengabe lortuko baitira hobekuntza teknikoak eta sorospen-hobekuntzak eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzea. Prebentzioan, diagnostikoan, tratamenduan, arretan eta laguntza tekniko eta teknologia berrien aplikazioan egiten diren hobekuntzek mendekotasun-egoeren eragina gutxitzen dute eta autonomia pertsonala sustatzen dute.

Lankidetzaren eta koordinazioaren gizarte-zerbitzuek eta bestelako zerbitzu publikoek arduratzen diren administrazio publikoen artean; eta xedetzat gizarte-beharrez arduratzea duten bestelako agenteen artean.

Herritarren **parte-hartze** demokratikoa, maila indibidualean edo kolektiboan, ekintza-esparru guztietan, bai erabiltzaile gisa –bermaturik egon behar du eta utziezinezko eskubidetzat hartu behar da, bai baliabide-motak hautatzeko orduan, bai eragiten dieten parte-hartze programak zehazteko orduan–, bai komunitate-ekintza eta bolondresen lana garatzeko lanean ari diren erakunde solidario gisa (hirugarren sektorea edo irabazi asmorik gabeko sektorea).

Arreta pertsonalizatua, erabiltzaile bakoitzaren beharrei kalitatez erantzun ahal izateko, era osoan, dibertsifikatuan eta malguan, ahalik eta osasun- eta ongizate-mailarik altuenak lortzeko. Arreta horrek prebentzio-programak eskaini behar ditu, ez soilik bizi-kalitatea hobetzeko, baizik eta ezintasunik gabeko bizi-kalitatea hobetzeko ere bai; erabiltzaileei autonomia-maila altuagoa emango dieten programak, ikuspuntu birgaitzaitetik pertsonen bihurtasun- eta sendatze-irizpidea eta pertsonen izaera modu askean garatu ahal izatea bere gain hartuz.

Bizitzako esparru guztiak normalizatzeko eta inguru pertsonalean, familiarrean, sozialean eta kulturean pertsonaren integrazioa lortzera zuzendutako arreta (ikuspuntu komunitarioa). Egitura informala laguntzea, hurbiltasun-irizpideekin eta landa-eremuaren berezitasunak aztertuz.

Arreta profesionalizatua, beharrezkoa den kualifikazio teknikoa duten pertsonen eginga, gizarte-bolondresei kalterik eragin gabe, bolondresen berezko balioa kontuan hartzen baitugu.

Familiarekiko osagarritasuna. Orain arte familia izan da gizarte-zerbitzuen arretaren euskarri nagusia, batez ere mendekotasuna duten erabiltzaileena. Gaur egun aldaketa garrantzitsuak gertatu dira familia-ereduan eta horrek familiaren zainketa-lanak zailtzen ditu.

Administrazioak baliabide egokiak eskaini behar ditu familiaren beharrei erantzuteko eta, edozein kasutan, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen duintasuna babestu behar du.

Lankidetzaren hirugarren sektorearekin, hau da, soilik gizartearen parte hartzera begira lanean dagoen eta irabazi-asmorik ez duen sektorearekin. Hori balio bat da, errealitate bat, eta iraupen-bermea gizarte heldu batentzat. Historikoki, Euzkadiko gizarte-egitura asoziatiboaren garapena aparta izan da.

Gizarte-zerbitzuen munduaren inguruan erakunde asko daude, horietako asko gaixoak eta haien senideak, eta haien funtsezko kezka ahaleginak egitea da pertsonen bizitza duintzeko, batez ere ahulenena.

Kasu askotan, batez ere iraganean, hirugarren sektoreko erakundeak izan dira zerbitzuak eskaini dituztenak Administrazioak eskaintzen ez zituenean. Gaur egun, EAJK erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema mantentzea defendatzen du, hirugarren sektoreko erakundeekin lankidetzan. Ezin ditu errealitatearen ezagutza, bere arazoarekiko gertutasuna eta kudeaketan duen eskarmentua saihestu.

Lan-harremanetako duintasun-printzipioa. EAJK erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen sistema garatzearen eta mantentzearen alde dago, nahiz eta askotan ekimen pribatuek edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek haren kudeaketa kontratatzen eta hitzartzen duten.

Horregatik, EAJK gizarte-zerbitzuen sektore bat bultzatu nahi du. Sektore horrek lan-erlazio duinak izango ditu eta bertan lan egiten duten pertsonen motibazioa sustatuko du, eta kalitatezko zerbitzua ahalbidetuko duen lan-giroa bermatuko du. Sektore honetan giza-baliabideak funtsezko elementu bihurtzen dira, eskaintzen den zerbitzua kalitatezkoa izan dadin.

Jokabiderako irizpide etikoak. Gizarte-zerbitzuetan jokabiderako irizpide etikoak garatzearen helburua da prozeduretan eta programetan arreta egokia lortzea, eta baliabideen eta zerbitzuen bidezko banaketa lortzea. Erabiltzaileen autonomia lortzera bideratuta egon behar du, pertsonak hartzaile soil gisa hartu gabe, baizik eta programa eta zerbitzuetan parte hartu eta zerbitzuak kudeatzen dituzten agente aktibo gisa.

Erantzunkidetasuna finantzaketan. Botere publikoen parte hartzea finantzaketan erantzunkidetasun-printzipioaren bidez gauzatuko da, eta bertan botere publikoak eta zerbitzuaren erabiltzaileak, haien ahalmen ekonomikoaren arabera, dagozkien finantza-bitartekoak emango dituzte.

Interkulturalitatea. Politika publikoek pertsonen ezaugarri kulturalak bermatuko dituzte, batez ere kontzientzia- eta erlijio-askatasunetik eratortzen direnak, betiere zerbitzuaren funtzionamendu egokiarekin bateragarriak badira eta giza-eskubideak errespetatzen badituzte.

4.- EREMU INSTITUZIONALA

Euzkadik komunitate sozial, ideologiko eta kulturala osatzen du, baina ez dauka batasun politikorik. Estaturik gabeko herria da, administratiboki eta politikoki bi estatu ezberdinetan banatua dago. Estatu frantsesaren errealitate politiko eta administratiboarekiko ezberdina da; Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren errealitate politikoak eskubide historikoetan oinarrituta osatu ziren, Estatu espainiarraren barruan; horrek guztiak egitura instituzional konplexua ekarri du. Konplexutasun horrek, bestalde, lurralde bakoitzaren errealitateak islatzeko balio du, eta ekintza politikoa errazteko fiskalitatea edota gizarte-ekintza bezalako gai garrantzitsuetan, lurralde bakoitzaren beharren eta lehentasunetan oinarrituta.

EAJren ekintza politikoa ez da soilik eremu horietara mugatzen; bere bokazioa euskal herritarrei eragiten dieten erabakiak hartzen diren foro instituzional guztietan present egotea da.

Nazioartean, euskal abertzaletasunak, Nazio Batuen Erakundearen sorreratik (1946), Giza-Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta beste Deklarazioetan agertzen diren oinarritzko balioak partekatzen ditu.

Euskal abertzaleek duten erreferentzia eztaba daezina Europan dago, eta bertan EAJ, hasiera-hasieratik, herrien Europa defendatzen aritu da, Estatuaren Europaren aurrean. Europa da Gizarte Txosten honen erreferentea.

Gaur egun, Europaren eraikuntzaren une erabakigarrian gaude. Proiektu konstituzionala onartzeak edo errefusatzeak argi eta garbi islatu du Europako herritarrek gizarte-politika eskasen inguruan duten iritzia eta, beraz, etorkizuneko Europaren inguruan duten iritzia. Gizarte-gaiak prozesu konstituzionalean erabakigarri bihurtu dira, orain arte Gizarte-Zerbitzuei buruzko Liburu Zuria besterik egin ez dela egia den arren, eta hori oso urrun dago herritarren asmoetatik.

Geure eremu instituzionalean, Estatu frantsesean, Iparraldeak ez dauka onarpen administratibo edo instituzionalik, eta euskal probintziak Pirinio Atlantikoen Departamentuaren barruan daude XVIII. mendetik. Testuinguru politiko-administratibo honetan, gizarte-politikak euskal probintzietan Estatuaren antolakuntza-eremuan eratu eta exekutatzeko dira, Estatuak sistema oso antolatzen du eta haren funtzionamendua koordinatzen du, eta tokiko erakundeek Estatuaren organismo deszentralizatuaren funtzioa betetzen dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren eremuan, Euskal Herriko Autonomia Estatutua, Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa eta Nafarroako Foru Eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa, Abuztuaren 10ekoa, bi erkidegoen eskumen eskusiboa jasotzen dute gizarte-politiken alorrean.

EAEn, Lurralde Historikoen eskumenen banaketa eta esleipenen banaketa egiteko, Azaroaren 25eko 27/1983 Legea onartu zen, LHL gisa hobeto ezagutzen dena, eta xedetzat daukana *“Autonomia Erkidegoko eta Lurralde Historikoetako Erakunde Komunen eskumenak mugatu, haien titulartasunean eta jardutean (...), Konstituzioan eta Autonomia-Estatutuan aurreikusitakoaren arabera”*.

Urte batzuk igaro ondoren, 3/1979 Lege Organikoak zioena are gehiago zehaztea ezinbesteko izan zen, eta horregatik argitaratu zen 155/2001 Dekretua, Uztailaren 30ekoa, gizarte-zerbitzuen alorrean funtzioak zehazteko. Aipatutako dekretu horrek zehazten du zein eskumen esleitzen zaizkion euskal administrazio bakoitzari: Eusko Jaurlaritzari, Foru Aldundiei eta Udaletxeei:

- Eusko Jaurlaritzari dagokio guztien garapen legegilea eta arau-emailea egitea.
- Lurralde Historikoetan, haien garapen arau-emaile eta departamentalek egituratzen dituzte haietako bakoitzaren eskumenak. Oro har, EAEn kasuan, Aldundiei arreta espezializatua dagokie.
- Azkenik, udalerritari, oro har, oinarrizko arreta dagokio, oso garrantzitsua.

Eskumenen eta zereginen banaketa honek lurraldeei haien zerbitzuak errealitate zehatz bakoitzari eta unean uneko lehentasunei egokitzea ahalbidetu die; horrela, gaur egun, eta datu orokorretan oinarrituta, arreta-maila homogeneousak daude.

Bestalde, 2007ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zen Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun-Egoeran Dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legea, eta horrek eskumen-arazo bat sortu du; izan ere, Autonomia Estatutuak eta LORAFNA-k (Nafarroako Foru Araubidea Hobetzeko Lege Organikoak) eskusibotzat hartzen dituzten gaiari eragiten die, eta bi erkidegoetan hainbat urtetik hona eskaintzen diren zerbitzuak diseinatu eta arautzen ditu.

Legeak, konstituzioko 149.1.1 artikuluan dio Estatuari dagokiola eskumen eskusiboa, oinarrizko baldintzak arautzen dituzten eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak konstituzionalak betetzeko. Guk uste dugu artikulua hori ezin dela ulertu, inolaz ere ez, estatuaren eskumenean iturburu gisa eta ez diola Estuari ahalbidetzen Legeak onartzen dituen arau guztiak xedatzea.

Oinarrizko gaia da hori, izan ere, eskumen hauek gauzatzeak ahalbidetu dio Euzkadiri mendekotasunaren alorrean arreta-zerbitzuak edukitzea; zerbitzu horiek, bai zerbitzuen aldetik bai estaldura aldetik, gaur egun Estatuaren Gobernuaren aurreikuspenak nabarmen gainditu dituzte.

Alderdi positiboaren artean, administrazioak pertsonen eskubidea onartu du, mendekotasun-egoeran daudenean haien ardura hartzeko.

Hurrengo urteetarako erronka Ongizate Estatuaren laugarren oinarriztat hartuko den gizarte-zerbitzuen sistema sortzea izango da, erakundeen lankidetzan eta gaur egungo eskumenetan oinarrituta, eta etorkizuneko eskumenei kalte egin gabe. Erakundeen arteko lankidetzaren handitzea beharrezkoa da, horrela mugako esparruetan dauden eskaerak asetzeko (gizarte-hezkuntzan) eta zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen sarbide bakarreko eta erakundeen arteko guneak eskaintzeko.

5.- EKINTZA-ARLOAK

5.1.- Familia

Familia euskal gizartearen oinarrizko erakundea izan da, eta horrela izaten jarraitu behar du. Sozializatzeko oinarrizko bidea da eta, beraz, pertsonen bizitza garatzeko eremu naturala eta nagusia.

Baina ezin diogu ezinikusiarena egin gizarte-errealitateari, non familia tradizionalaz gain bestelako familia-ereduak agertu diren.

Familian jazo diren aldaketek, batez ere, tradizionalak familiak bete dituen hainbat funtzio betetzeko baldintzei eta gaitasunari eragiten diete. Azken urteotan, bizi ditugun egoera sozioekonomiko eta kulturek eraginda, adin txikikoak zaintzen dituzten guraso bakarreko familiak areagotu dira, baita kide

bakarreko familiak edo sexu bereko bikoteak ere, baina eredu tradizionalak – familia nuklearra seme-alabekin– gehiengoa izaten jarraitzen du. Gehien aldatzen ari dena familia horren barneko eginkizun tradizionalak dira: kide gutxiago, seme-alaba gutxiago eta aukera gutxiago mendekotasun-egoeran dauden kideak zaintzeko.

Azken hamarkadetako gizarte-, ekonomia- eta demografia- krisiek eta zailtasunek familiaren arazoek efektu larriak leuntzeko duen gaitasunaz ere berriz jabetzeko aukera eman dute, esate baterako langabeziak, gaixotasunez, etxebizitzaz, drogamenpekotasunaz edo bazterketaz. Familia, gaur egun, gizartearen barruan lehen elkartasun-gunetzat hartzen da, eta batasun juridikoa, soziala eta ekonomikoa baino askoz gehiago da. Familia, lehenik eta behin, maitasun- eta elkartasun-komunitatea da.

Azken urteotan, bai Europako herrialdeetan bai nazioz gaindiko erakundeetan, familiaren arazoek inguruko kezka handia sortu da. Kezka hori bat dator familia eta familia-bizitzaren inguruak babesteko gero eta behar handiagoa duen gizarte-sentimenduarekin; beraz, familia-politika gizarte-lehentasun gisa ulertzen da orain.

EAJrentzat, familia babestu beharreko Erakundea da, bi alderdi hauetan betetzen duen funtzioagatik: lehenik eta behin, gizartearen erakunde-antolatzaile gisa, guztiontzako kultura eta elkarbizitzaren oinarria diren balioak transmititzen dituelako; bigarrenik, oinarritzako maila delako, lehenengoa, adina, gaixotasuna edo ezintasuna dela eta eguneroko bizitzarako beste pertsonen laguntza behar duten pertsonak zaintzeko.

Familiak babestea EAJren lehentasuneko helburua izan behar du, bertan jazotzen diren aldaketek eta eraldaketek gizarteaz azaltzen diren joera demografikoetan funtsezko eragina dutelako. Gaur egun garrantzitsuenak jaiotza- eta ugalkortasun-tasa baxuak dira, eta horren ondorio den populazioaren zahartze-prozesua.

Kontuan hartu behar diren beste alderdiak eta ondorioak, mota guztietako zerbitzuetan eta erantzunetan duten eraginagatik, honakoak dira, esate baterako: banantze- eta dibortzio-prozesuak haztea, izatezko bikoteen elkarbizitza eta haien onarpena nabarmen haztea, bat egite homosexualen gizarte-garrantzi eta garrantzi legegile handiagoa, etorkinen herrialdeetan normalak diren familia-eredu eta kultura berriak, laguntza bidezko ugalkuntzarako teknika berriak agertzea, nazioarteko adopzioen garrantzi handiagoa, seme-alabak berandu ateratzea gurasoen etxetik, etab.

Bestalde, familiaren balio tradizionalak aldatzeak, eredu hierarkiko patriarkala pixkanaka amaitzeak eta eredu berriek, familiakide bakoitzaren eskubide indibidualek indar handiagoa hartzea ekarri du, batez ere gehien babestu behar direnak: adin txikikoak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.

Administrazio publikoek egin beharreko familia-politikak, EAJren iritziz, aurrefaktore hauek hartu behar ditu kontuan, eta bideratuta egon behar du familia-mota guztiengana, kide guztien garapen pertsonalera, familia-

proiektuaren definizioaren askatasunera, kide guztien eskubideen eta betebeharren berdintasunak sustatzera.

Hauexek dira oinarrizko xedeak:

- Familien bizi-kalitatea hobetzea, etxeen eta kideen ongizate-maila hobetzea, batez ere arrisku-egoeran dauden pertsonena.
- Hobekuntza ekonomikoez haratago, egonkortasuna, elkartasuna, laguntza, begirunea, hezkuntza, etab. bezalako balioak sustatzea, familia-erakundeak berezkoak dituelako.
- Familia sendotzea, gizarte-koehesioaren eta belaunaldien arteko elkartasunaren berme gisa.
- Belaunaldi berriei familia-proiektua hasten eta diseinatzen erraztea.
- Emakumeei lan-mundurako sarrera eta ibilaldi profesionala erraztea eta, era berean, familiakide guztien erantzukizuna sustatzea seme-alaben zainketan eta hezkuntzan eta berak zaintzen dituen eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zainketan.

Xede hauek lortzen laguntzeko beharrezkoa izango da ekintza-eremu bakoitzean oso neurri ezberdinak hartzea: pertsona nagusiak, ezintasunen bat duten pertsonak, adin txikikoak, arrisku- edo bazterketa-egoeran dauden pertsonak eta babesik gabeko egoeran dauden emakumeak:

- Alde batetik, neurri fiskalak, heziketakoak, legalak edo hezkuntzakoak, familia indartzen dutenak gizartearen elementu antolatzaile gisa, amankomuneko kulturaren eta elkarbizitzaren oinarri diren balioen igorle gisa, kide guztien garapen pertsonalerako laguntza gisa.
- Bestalde, laguntza ekonomikorako neurriak, laguntzeko neurriak, atsedeen-programak, urrutiko laguntza, etxeko laguntza, eguneko eta gaueko zentroak, okupazio-zentroak, etab. Neurri hauek guztiak kideen zaintzeko funtzioa indartzeko izango dira, adina, gaixotasuna edo ezintasuna dela-eta beste pertsonen laguntza behar badute eguneroko bizitzarako.

Familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko neurriek arreta berezia behar dute; izan ere, familia-gaietako politika integralen oinarrizko ardatza familiakideen familia-bizitzaren eta lan-bizitzaren bateragarritasuna da, batez ere emakumeak lan-merkatuan duela gutxi sartu direnetik.

Lan- eta familia-eremuen arteko oreka-puntua oso ezberdina da pertsona bakoitzarengan, bakoitzaren balioen eta lehentasunen arabera delako. Hala eta guztiz ere, gaur egungo oztopoak ohitura eta eginkizunen aldaketara egokitu ez den gizarte-antolaketan datzate; horrek familia askok haien

eginkizunak askatasunez eta bizi-kalitate onargarriaz antolatu ahal izatea eragozten du.

Eremu atseginagoa sortzea, bertan familiek bizitza nahierara antolatzeko; gizarte-agente eta instituzional guztiek konpromisoa hartu eta parte hartu behar dute, halaberrez:

- Familiak berak; pertsonak jarrera lagungarriak sustatu behar dituzte, familien erantzukizunak era orekatuan banatzeko gizonen eta emakumeen artean.
- Oso garrantzitsua da enpresek, giza-baliabideen arloan antolatzeko duten eraren bidez, lana eta familia-bizitza bateragarri egiteko giro lagungarriagoa sortzea. Era berean, beharrezkoa da Haur Eskolen sarea pixkanaka handitzea, umeak 4 hilabeteetatik 2 urtetara eskolatzeko eskaerari erantzuna emateko.
- Sindikatuek zein patronalak Euzkadiko lan-errealitatearen barruan sartzeko beharrezkoa den pentsamolde-aldaketan eragiten lagundu behar dute.
- Azkenik, Administrazio Publikoko maila guztiek ziurtatu beharko dute gizonak eta emakumeak lan-merkatuan sartu ahalko direla, inolako bazterketarik gabe eta, lanean ari diren arren, haien familia-beharrak alde batera utzi behar izango ez dituztela. Horregatik, garrantzi berezia dute haurrei, pertsona nagusiei eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzen dieten zerbitzuek.

5.2.- Babesik gabeko egoeran dauden emakumeak

Gizarteko oinarrizko erakunde gisa familiari laguntzera zuzenduta dauden politikek beste politika espezifiko batzuekin batera egon behar dute, tradizionalki erakunde honi kohesioa eta zentzua ematen dioten funtzioak egin dituztenei, eta oraindik egiten dituztenei zuzenduta: emakumeei. Emakumeak pertsonalki sustatzeko, aukeren, eskubideen eta betebeharren (bai familia-esparruan, lan-esparruan edo gizarte-esparruan) berdintasunerako politikak dira. Eta, haiekin batera, sexuak eragindako indarkeriaren aurka borrokatzeko neurriak ere bai.

Familia-erakunde honen barruan, hain zuzen ere, nahiz eta batzuetan berarengandik kanpo ere izan, emakume askok haien oinarrizko eskubideak urratuta izaten dituzte, tratu txarrak eta indarkeria jasaten dute.

Gizarte-erakunde eta politiko guztietatik, salbuespenik gabe, emakumearen benetako berdintasuna, eskubideak eta duintasuna errespetatu behar dira, eremu publiko zein pribatuan; are gehiago emakumeen eskubideak gehien

urratzen direnean: indarkeria, tratu txar psikologikoa, sozial, ekonomikoa, sexuala eta fisikoa, batzuetan heriotzera ere iristen dena.

Hainbat eratan emakumeen aurka egiten den indarkeria haien segurtasun fisiko eta moralaren aurkako eraso larria da. Pertsona gisa duten duintasunari eraso zuzena. Beraz, tratu txarrez hitz egitean emakumeen giza-eskubideak larri urratzen dituen gertakari baten aurrean gaude, eta garrantzi handiko gizarte-arazo baten aurrean, gure artean duen maiztasun handiagatik eta uzten dituen ondorioen larritasunagatik, fisikoak zein psikologikoak, bai biktimei, familiari eta gizarteari berari.

Emakumeen aurkako indarkeriatzat edozein ekintza edo ez egite-, kontrol- edo mehatxu-portaera hartu behar da, emakumeentzako emaitza mina edo sufrimendu fisikoa, sexuala, edota psikologikoa eduki ahal badu, eta oinarrian familia- edo afektibitate-erlazioa badauka, gaur egunekoa edo zaharragoa.

Gizarte-gertakari baten aurrean erantzuteko gai izateak hura ikusteko eta izen bat ipintzeko gai garela esan nahi du. Emakumeen aurkako indarkeria, bortxaketa-era guztietan, “ez ikusia” egon da urte askotan, izkutatuta, ixildua, baina historikoki gizarteari eta jokabideei lotuta, eta beti ulertu izan da jarduera normal eta onartutzat.

Gauzak horrela, ondokoa daukagu:

- Indarkeria fisikoa: emakumeari min ematen dion eta eman diezaiokeen eta ustekabean gertatu ez den edozein ekintza da.
- Indarkeria sexuala: emakumearen nahiaren aurka eta ustekabean gertatzen ez den edozein jokaera da.
- Indarkeria ekonomikoa: emakumeei informazioa izateko aukera edo dirua erabiltzea ukatzen zaienean, egindako gastuak kontrolatzen direnean, dirua beharrik gabe erabiltzen denean bai erlazioaren beharren kalterako, bai elkarbizitzaren kalterako.
- Indarkeria psikologikoa: emakumearen nortasuna mespretxatzeko erabilitako edozein ahozko jokaera da.
- Indarkeria soziala: emakumearen nortasunari jendaurrean balioa kentzeko erabiltzen diren ahozko jokaerak dira, eta gizarte-erlazioetan bere isolamenduari eta autonomia pertsonalari balioa kentzeko: familia-erlazioei, lagunarteko erlazioei, bizilagunekiko erlazioei, erlazio asoziatiboek edota lan-erlazioei.

Egoera horien arrazoi nagusia, bai elkarbizitza-nukleo bateko familia- eta afektibitate-erlazioetan, bai etxebizitzaren muga horretatik haratagoko erlazio afektibo edo sentimentaletan, matxismoa da, eta horrek botere-bereizgarria sortzen du. Arrazoi guztien sorburu komuna emakumeek gure gizartean

pairatzen duten ezberdintasun- eta menderakuntza-erlazioan datza. Mendekotasun ekonomikoa, familian gertatu den eginkizunen banaketa tradizionala eta estereotipo eta sexu-balio tradizionalak mantentzea daude jokabide hauen muinean, eta mendeetan zehar ez ditugu ikusi.

Etxean gertatzen den emakumearen aurkako indarkeriak asko mintzen du sufritzen duena, eta ondorio lazarriak ditu, ez bakarrik uzten dituen aztarna fisikoengatik, baizik eta, agian era maltzurragoan, sortzen dituen kalte psikologikoengatik, biktimen portaera aldatzen baitute eta gainerako familiakideengan ondorioak uzten baitituzte.

Urte batzuen buruan, gai pribatua izatetik genero-indarkeriaren aurka aurrerapauso garrantzitsuak ematera igaro gara.

Emakumeak eta haien adin txikikoak babesten dituzten eta tratu txarren emaileak etxetik urrun mantentzen dituzten lege-erreformak onartu dira; ondorioak jasotzen dituzten taldeen arretarako erakundeen arteko lankidetzaprotokoloak egiten dira; gizarte-laguntzak, tratamendu psikologikorako programak, gizartea sentsibilizatzeko kanpainak, etab. egin dira, eta neurri horiek guztiek gaiari askoz era errealistagoan ekitea ahalbidetzen dute. Baina, hala eta guztiz ere, konpromisoa irmoa bada ere, oraindik bide luzea dago egiteke tratu txarrei hedadura guztian aurre egiteko eta desagerrarazteko.

EAJren oinarrizko proposamenak, emakume horientzat eta haien adin txikikoentzat, ondorengo xedeak dituzten politiketan sakontzen jarraitzea da:

- Kultura matxista eta emakumeen aurkako indarkeriaren muinean dauden emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunarekin amaitu.
- Gizarte-ekimenen, judizial eta polizialen bidez emakumea babestu.
- Tratu txarren biktima diren emakumeen eta adin txikikoen gizarteratzea eta bizitzaren normalizazioa sustatu.
- Indarkeria-egoerak saihestera eta arintzera bideratutako ekimen legalak, instituzionalak eta sozialak koordinatu.
- Indarkeria dela-eta etxea utzi behar duten emakumeentzat eta haien adin txikikoentzat harrera- eta laguntza-zerbitzuak sortu.
- Sexua dela-eta gertatu den edozein diskriminazio-zantzurekin errotik amaitu.

5.3.- Haurtzaroa eta Nerabezaroa

Zahartzen ari den gizarte batean eta jaiotza-tasa baxuak direla-eta, umeei eta gazteei eskainitako arretak eta familian seme-alaben hazkuntza sustatzen duten neurriek EAJren lehentasun politikoa izan behar dute.

Gizarteak beharrezko baliabideak eskaini behar ditu adin txikikoen eta nerabeen ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzeko, baita haien hezkuntza, haien nagusi-bizitzarako gaitasuna eta balio eta ondasun kulturalen transmisioa ere. Zeregin hau gizarte- eta erakunde-estamentu guztiei dagokie: familiari, komunitateari, hezkuntza-sistemari, osasun-sistemari, gizarte-sistemari, etab.

Ardura berezia eskatzen dute babesik gabeko egoeran edo hazkuntza-, garapen- eta hezkuntza-prozesu normaletatik kanpo geratzeko arrisku-egoeran dauden umeei eta gazteek. Askotan, familia-egoera txarrek (familia-gatazkek, pobreziak, deserrotzeak, toxikomaniek...) zailtasunetan uzten dituzte umek, nerabeak eta gazteak. Horrekin batera, egoera berriak ditugu, beste herrialdeek bizi duten pobreziak eta zailtasunek eragindakoak, eta horren ondorioa umeen eta gazteen legez kanpoko inmigrazioa da.

Egoera honen aurrean, gizarteak umek babesteko sistema sortu behar du; sistema horrek, funtsean, lehenik eta behin arriskua, babesgabetasuna eta tratu txarrak eragiten dituzten arrazoiak aurreikusi, antzeman eta saihestu behar ditu; eta, bigarrenik, familia-ingurune egoki batean garapen normala eta integratua bermatzen duten neurriak antolatu behar ditu, familia-ingurunea egokia den guztietan.

Gurea bezalako gizarte moderno batek umeen eta nerabeen eskubideak babesten saiatu behar du, baita haien oinarrizko beharrak asebetetzen saiatu ere. Hori lortzen da haiei ahalik eta sozializaziorik normalena eta ingurune egonkor eta ziur bat eskainiz, horrela haien oinarrizko beharrak asebetetze ditzaten:

- Arretafisikoa (elikadura, higiena...).
- Maitasuna, onarpena eta ziurtasuna erlazio afektiboetan.
- Autoestima eta autonomia pertsonalaren maila igotzea.
- Haien adinari eta ezaugarri pertsonalei dagozkien hezkuntza, heziketa eta sozializazioa.

Amak, aitak, familia osoa babeslekurik onena dira ume eta nerabeentzat, eta haien oinarrizko beharrak betetzeko biderik normalena. Hala eta guztiz ere, zainketa, hezkuntza, heziketa eta sozializazioa ez dira eginkizun errazak eta hainbat amak eta aitak arazoak dituzte gurasoen eginkizuna betetzeko.

Hala ere, zailtasunak dauden kasu horietan, haien baliabide pertsonalek eta kanpoko laguntzak posible egiten dute haietako gehienak zailtasun horiek gainditzea eta haien betebeharrak behar bezala egitea.

Kasu horietan, gizarteak parte hartu behar du honakoa lortzeko:

- Umeen eta nerabeen eskubideak babesteko eta haiek babesten saiatzeko.
- Familiaren haustura aurreikusi eta saihesteko.
- Beharrezkoa baldin bada, amak eta aitak haien guraso-eginkizunetan denbora batez ordezkatzeko, baina haien eginkizunak bete ahal izateko beharrezkoak diren zerbitzuak eta baliabideak emateari utzi gabe.
- Umeari eta nerabeari familia-ingurune alternatiboa, egonkorra eta ziurra ematea, bere jatorrizko familian geratzea edo haiengana itzultzea ezinezkoa baldin bada.

Babesik gabeko egoeran dauden umeen kasuan honako oinarrizko printzipioa eduki behar da beti gogoan: umearen interesa besteen gainetik gailentzea. Oinarrizko printzipio horri ondorengoak gehitzen zaizkio:

- Adin txikikoa bere jatorrizko familia-ingurunean mantentzea, soilik bere intereserako komenigarria denean.
- Familian eta gizartean integratzea.
- Bere garapen pertsonalari kalte egin diezaioketen egoera guztiak saihestea.
- Gizartea adin txikikoaren babesgabetasunei buruz sentsibilizatzea.
- Gizartearen parte hartzea eta elkartasuna sustatzea.
- Babesa emateko orduan, objektibitatea, inpartzialtasuna eta segurtasun juridikoa, eta epaileen izaera eta disziplinen arteko izaera bermatzea neurriak hartzeko orduan.

Adin txikikoari interes handiagoa emateak suposatzen du umea bere gurasoekin geratuko dela, familia-nukleoan, ahal den guztietan; hori ezinezkoa denean, familiaren ahalik eta antz handiena daukan bizilekua bilatuko da, eta lehenengo egunetik lan egingo da, posible izanez gero, familiarengana berriz itzultzeko.

Saihesteko eta babesteko oinarrizko lanean bereziki garrantzitsua da komunitatearen lana, udal-barrutiak ematen duten laguntza, adin txikikoak hurbilen daukana. Hurbiltasuna, herriko edo mankomunitateko gizarte-zerbitzuek familiari ematen dioten laguntza oso garrantzitsua da. Lehen lan horrek, konponbide integratzaileak eta normalizatzaileak bilatzea, deserrotze handiagoko egoerak saihesten ditu. Horregatik, oso garrantzitsua da oinarrizko zerbitzuak, herriko zerbitzu sozialekin lotuta daudenak, handitzea eta hobetzea, haiek daukatelako babesgabetasun- edo arrisku-egoeretan oinarrizko esku-hartzearen erantzukizuna. Saihestea eta antzematea gizarte osoaren

erantzukizuna dira, ez soilik erakundeena, baina erakundeek hartu behar dituzte adin txikikoen bizitza arintzeko eta normalizatzeko oinarrizko eta espezializatutako neurriak.

Komunitateko zerbitzuek, eskolak, oinarrizko gizarte-zerbitzuek, adin txikikoak eta bere inguruneak hurbilen dituenak, eskasi pertsonalak, afektiboak, familiakoak, hezkuntzakoak, sozialak... saihestu eta arindu behar dituzte, adin txikikoak familia-, gizarte- edo komunitate- ingurune ezegokietan badaude, eta haien ongizatea sustatzea garapen pertsonal osoa lortzeko, hori guztia adin txikikoarekin eta bere familiarekin batera egindako gizarte- eta hezkuntza-lanaren bidez. Esku-hartze hau prebentziozkoa da, moldatu ezineko prozesuak, pobretze- eta isolatze-prozesuak sortzen dituzten mekanismoak antzematera bideratua. Hiru dira landu beharreko alorrak: eskola, ingurune zabala eta familia. Ingurune zabalean hezitzaileek adin txikikoak eta gazteak lagundu behar dituzte haien ingurunean integratzen, ohitura osasungarriak hartzen, eskolan haien gaitasunak sustatzen, aisialdiko ekintzetan gozatzen, haien garapena erraztuko duten talde, koadrila eta gizarte-ingurunetan sartzen.

Familiaren eremuan, hezitzaileak saiatzeko dira familiak haien arazoaren kontzientzia har dezan, arazo horiek konpontzeko oinarrizko heziketa har dezan eta garatzea ahalbidetuko dioten ohiturak har ditzan.

Umeak edo nerabeak haien familia-ingurunean mantentzeko aukerak porrot egiten dutenean, ahalik eta aukera antzekoenak bilatu behar dira. Familia handietan hartzea, beste familietan hartzea, adopzioak... sustatuko dira. Konponbide hauek posible edo egokiak ez badira, egoitzak bilatu beharko dira, ingurune normalizatzaileetan talde txikiak bilatzen saiatuz, non haien errealizazio pertsonala posible den. Hala eta guztiz ere, familia-ingurunera itzultzeko helburua, betiere adin txikikoaren interesari begira, ezin izango da alde batera utzi.

Era berean, beharrezkoa da 18 urteetatik haratago, adin nagusitasunaren mugan, gizarte-laguntza eta erakundeen laguntza mantentzea, oraindik hezkuntza-proiektuak eta bizitza independenterako proiektuak osatzea beharrezkoa denean.

Batzuetan, ez da nahikoa oinarrizko lanarekin, maitasuna ordezkatzearekin... Zenbaitetan espezializazio-maila handiko laguntza behar izaten da; badaude umeei pairatzen dituzten sexu-gehiegikeriak, adin txikikoen arteko droga-kontsumoa, familia barneko indarkeria, etab. Gizarteak oinarrizko baliabideak lortu behar ditu, baina baita baliabide espezializatuak ere.

Adin txikikoaren interes hauek gailentzen direneko printzipioak, familia-giroa mantentzeko printzipioak, ahal den guztietan familia berriz elkartzeko printzipioak, beti eta kasu guztietan aplikatu behar dira; baita gure gizartean indartsu sartu diren bi gertakari ere: nazioarteko adopzioa eta umeen inmigrazioa.

Lehen kasuan, garrantzitsua da gizartearen ardura babesgabetasun-egoeran dauden adin txikikoekiko, eta gure mugak gainditzen ditu. Orduan pertsona batzuek adin txikiko hauek laguntzeko nahia izaten dute, haien familiako kide bihurtuz, adoptatuz. Saiakera goraipagarri honek printzipio etiko batzuei lotuta egon behar du; garrantzitsuenetako bat, eta bide batez aurretik aipatu direnetatik zuzenean ondorioztatzen dena, hauxe da: gizarteak eta erakundeek babesgabetasun-egoeran dauden aitak eta amak edo umeak bilatu behar dituzte, ez aitei eta amei seme-alabak bilatu.

Horregatik, muturreraino zaindu behar dira aurretik aipatutako printzipioak haien osotasunean mantentzeko kontrolak.

Bakarrik datozen adin txikiko atzerritarrak. Legez kanpoko umeen inmigrazioa oso kezagarria da. Funtsean, gero eta hobeto antolatuta dauden mafien laguntzaz, Europako mugak zeharkatzen dituzten umeak dira, Marokotik, Aljeriatik eta Saharaz hegoaldeko Afrikatik datozenak, literalki bidaian bizitza arriskuan jarriz eta, askotan, haien helduen emigrazio-asmoen zati dira, eta helduek ezagutzen dituzte babesik gabe European dauden adin txikikoek dituzten eskubideak eta haien jatorrizko lurraldeetara itzuli ondoren familiekin berriz elkartzeko dituzten zailtasunak.

Gizarteak arazo larri horretaz jabetu behar du, eta koordinatutako erakundeen ekintza baten beharraz ere bai, azken batean adin txikiko batzuen deserrotzea lortzen duen gertakaria baita eta haien bizitza arriskuan jartzen duelako. Hasieratik lan egin behar da, adin txikikoak helduen migrazio-proiektuen erantzule izatea saihestu, oso argi izan umeak haien familiekin bizi behar dutela, eta jatorrizko herrialdeetan pobreziaren aurka ekiteko neurriak hartu.

Legez kanpoko umeen inmigrazioak eta inmigrazioaren baldintzek behartzen gaituzte, ezinbestean, estatu mailako eta Europa mailako politikak defendatzera, adin txikikoen inmigrazioaren gertakariari buruz planteamendu orokorrak egiteko.

5.4.- Autonomia pertsonala sustatzea

EAJren azken helburua gizarte bat sortzea da, non pertsonak, haien egoeraren gainetik, bizitza normala, osoa eta duina egin ahalko duten. Xede hori lortzeko beharrezkoa da, lehenik eta behin, bitarteko legalak lortzea, zerbitzu eta baliabide materialak, pertsonen eskubideak benetan bermatzeko. Beharrezkoa da baita ere gure gizarte-ingurunea eta hiritarra era “barne-hartzailean” pentsatzea eta diseinatzea, hau da, pertsona guztiek onura atera ahal izateko oztoporik gabe. Hala eta guztiz ere, oraindik haien ondasunak eta zerbitzuak erabiltzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat, gizarteak haien integrazioa errazten dituzten irtenbide bereziak eratu behar ditu: estimulazio goiztiarra, hezkuntza, laneko integrazioan lagundu, laguntza teknikoak, etab.

5.4.1.- MENDEKOTASUN-EGOERAK SAIHESTEA ETA ZAHARTZE AKTIBOA SUSTATZEA.-

Bizi-itxaropena handitzeak eta populazioaren zahartzeak gizarte honetan eragin du 65 urtetik gorako pertsonak, talde gisa, inoiz baino presentzia handiagoa izatea. Oraindik urte asko biziko diren pertsonak dira, eta gizartean parte hartzen jarraitu behar dute eta jarraitu nahi dute. Gizarteak zor dien arreta eta protagonismoa galdegiten duten pertsonak dira; zahartze duina eta ona izateko eskubidea duten pertsonak dira, mendekotasuna saihesten laguntzen dieten neurriak izateko eskubidea duten pertsonak. Gizarteak talde honek eskaintzen dituen potentzialtasun handiei probetxua atera behar die.

Beraz, pertsona nagusiek hazten jarraitzen duen talde osatzen dute, eta gizartean bete-betean parte hartzen jarraitzeko bizitza luzea daukate oraindik.

Nazioarteko erakunde guztiak bat datoz honako hau diotenean: nagusiek betebeharrak garrantzitsuak egiteke dutela, beharrezkoa dela haien parte hartzea sustatzen duten politikak diseinatzea eta ezin ditugula haien adina, generoa edo zaurkortasun-maila dela-eta baztertu.

EAJk Nazio Batuek sustatu duten zahartze aktiboaren kontzeptuari heltzen dio; kontzeptu hori ongizate fisikoaren, sozialaren eta mentalaren aukerak hobetzen dituen prozesua da, eta bizi-itxaropen osasuntsua, produktibitatea eta zahartzaroko bizi-kalitatea dira haren helburuak.

Definizio horrek zahartzeari osasun-arretatik begiratzen dio, eta pertsonen zahartzeari eragiten dioten alor sozial, ekonomiko eta kultureko faktore guztiak hartzen ditu barne.

Zahartze aktiboko politika guztiak funtsezko baliabidea dira nagusiei haien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko eta gizartean haien behar, nahi eta gaitasunen arabera parte hartzen laguntzeko.

Pertsona nagusien eskubideak errazteko eta haien duintasuna eta bizi-kalitatea bermatzeko, EAJn honakoa jotzen dugu beharrezkotzat: haien historia, gizarteari egin dioten ekarpena eta gizarteari ekarpenak egiten jarraitzeko gaitasuna onartzea; beharrezkoa da baita ere aukera, ekintza-eremu eta baliabide gehiago eskaintzea haien egungo gaitasunak garatzeko, handitzeko eta bideratzeko, eta, azken finean, gizartean parte hartzen laguntzea.

Pertsonen zahartzea prozesu dinamikoa da, kasu bakoitzean ezberdina eta, beraz, zerbitzu, baliabide eta laguntza ezberdinak eskatzen ditu.

Zahartze aktiboaren aldeko apostu honek bost printzipiotan oinarrituta egon behar du:

- Autoerrealizazioa, pertsona nagusien gaitasunak indartzeko aukerak bilatzea.

- Independentzia sustatzea, haien autonomia ahalik eta denbora luzeenean mantentzeko.
- Parte hartzea, haien gainerako eskubideak gauzatzen diren berme gisa.
- Pertsona nagusien duintasuna defendatzea.
- Pertsona bakoitzaren beharrekin eta egoerekin bat datorren arreta egokia.

Bost printzipio horiek administrazioen jokaera-kriterioen artean nagusitu behar dira, zahartzen ari den pertsonak ongizate emozionala, fisikoa eta materiala bermaturik izan dezan, eta gizarteratzea, garapena eta erlazio pertsonalak, autodeterminazioa eta eskubide guztiak ere bai.

5.4.2.- MENDEKOTASUNA DAUKATEN PERTSONAK.-

Mendekotasuna eguneroko bizitzarako pertsona batek laguntza garrantzitsua behar duen egoera da. Eguneroko bizitzako jarduera horien artean kontuan hartu behar dira bai oinarrizko jarduerak (norbere burua zaintzea, etxeko lanak, etab.), baita hezkuntza-, lan- edo gizarte-inguruneetan behar-beharrezkoak diren jarduera instrumentalak ere. Pertsona batek eguneroko bizitzarako dituen mendekotasun- edo ez mendekotasun-mailak konbinazio baten emaitza dira, bere gaitasunen artean eta jarduerak garatzen dituen ingurune fisiko eta sozialaren artean.

Mendekotasuna prozesu dinamikoa eta aldagarria da, baita gertakari dimentsioaniztuna ere. Horregatik existitzen da aniztasun eta heterogeneotasun handia mendekotasun-egoeran dagoen populazioaren artean: adinari dagokionez, haien egoeraren arrazoiei dagokienez, urrituta dituzten gaitasunei dagokienez edo daukaten laguntzaren beharrei dagokienez. Ezintasuna duen pertsona batek ez du zertan gizarte-mendekoa izan, baldin eta beharrezko baliabideak eta laguntza baditu.

Mendekotasun-egoerek sufrimendua ekar diezaike bizi dituzten pertsonei, eta baliteke zenbat eta bakarrikago egon sufrimendua orduan eta handiagoa izatea. Hala eta guztiz ere, ezintasuna ezin da, globalki eta lehen begiratuan, arazo gisa ulertu eta aurkeztu, batzuetan egiten den bezala. Gertakizun naturala da, eta gure bizitzan eta gizarte-antolakuntzan izan dezakegu. Gizakiek hain berezkoak dituzten zaurkortasuna eta elkarmendekotasuna bereziki areagotzen deneko egoera da.

Mendekotasuna eta mendekotasunari arreta ipintzea, egiazki, ez dira gai edo gertakari berriak. Beti egon dira mendekotasun-egoeran izan diren pertsonak eta beti existitu dira mendekotasunari erantzuteko bide garrantzitsu eta baliotsuak, agente eta gizarte-erakunde ezberdinen aldetik. Familiek (eta

bereziki emakumeek) historikoki mendekotasun-egoeran zeuden kideei laguntza eman diete.

Edozein kasutan, historian zehar eta pixkanaka, familiez gain hainbat gizarte-agente eta erakunde publiko konprometituz joan dira mendekotasunari erantzuna emateko. Aldi berean, eta pixkanaka, kontzientzia hartu dute eta erakutsi dute mendekotasun-egoeran dauden pertsonak, herritar guztiak bezalaxe, gizarte-eskubideak dituztela.

Ezintasuna duten pertsonen bizitza normalizatu, duin, oso eta gizarteratuaz gozatzeko eskubide bera dute. Eskubide horrek herritar guztien esku uzten du integrazioa erabiltzeko erantzukizuna; izan ere, gizarte-instituzio eta -erakundeek mendekotasun-egoerak arintzen dituzten baliabideak eta zerbitzuak eskaini ditzaketen arren, pertsona hauek jasotzen duten gizarte-tratua izango da haien eskubideak errealitate bihurtzen dituztenak, enuntziatu soil bainoago. Honek eragingo du pertsona ezindu bat mendekotasun-egoeran egotea edo ez egotea.

Ikuspegi indibidual batetik, herritarren jokabidean gailendu beharko litzatekeen printzipioa ez da pertsona bakoitzak gizarteratzeko zer egin behar duen, baizik eta zer egin behar duen gizarteak, zer egin behar duen pertsona bakoitzak besteak gizarteratzeko. Horrela, ezintasuna duten pertsonen bizitza gizarteratu eta normalizatzeko erantzukizuna, erakundeen ekimenean datza, gizarte-ekimenean, kasu honetan, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta haien familien elkarteetan, eta herritarrengan beraiengan.

Azken urteotan mendekotasun-egoerek gora egin dute gure gizartean, bai kopuruetan bai garrantzian, eta hori, hein handi batean, populazioaren zahartzeari lotuta dago eta, gure aurrerakuntzen ondorio da, bai osasun-arretaren arloan, bai gizarte-ongizatearen arloan eta bizi-kalitatearen arloan, baina, neurri batean, gure gaur egungo bizimoduaren arrisku-jokabideen ondorioa ere bada. Hala eta guztiz ere, une honetan eta gure ingurunean, ez dirudi familiek mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eskaini izan dieten laguntza-maila eta -mota mantendu egingo denik, besteak beste, familia-egiturak eta gizarte-egiturak asko aldatu direlako, seme-alaben beherakada dela-eta, etxetik kanpo lan egiten duten senar-emazteen gorakada dela-eta, eta familia nuklearraren ereduaren zabalkuntza dela-eta.

Horregatik guztiagatik, gaur eta hemen, mendekotasuna gizarte-politikaren gai nagusietako bat da. Zalantzarik gabe, norberaren grinari eragin diezaiokkeen gertakizuna da, errealizazio pertsonalari buruz eta gizakien garapen osoari buruz pertsona bakoitzak duen grinari hain zuzen ere. Baina talde baten erronka ere bada, eta bere antolakuntzak eta baliabideak eskaintzeak gizartea kezkatzen du.

Guztiaren gaintik pertsona guztien duintasuna aipatu eta nabarmendu behar da. Guztiok dauzkagu eskubide berak eta adeitasun eta begirune bera merezi ditugu. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen, beraz, edozein pertsona autonomok duen aparteko balioa dauka. Portaerek, erabakiek, irudiek eta gizarte-egiturek koherenteak izan behar dute gizakiaren ikuspegi oso eta

integratzaile hauekin eta gure gizarte-elkarbizitzaren oinarri izan behar duen gizartearekin.

Prebentzioa. Mendekotasuna saihesteko garrantzia nabarmendu behar da, guztioi dagokigulako, eta lehenik eta behin bizitza-ohitura osasuntsuak izateko motibatu behar gaitu. Mendekotasuna, kasu askotan, saihestu daiteke eta gero eta gehiago dakigu mendekotasuna saihesteko kontuan hartu behar diren alderdiez. Mendekotasunari ekiteko edozein bidek garrantzia izan behar du antzemate eta tratamendu goiztiarretan, eta arreta goiztiarreko programak indartu behar ditu, era horretan funtzionamenduen urritasuna eta ezintasun iraunkorren urritasuna gailendu dadin saihesteko.

Horrekin guztiarekin, prebentziozko jokabidea, osasun-alderdian oinarritzkoa bada ere, ezin da eremu horretara mugatu eta bestelako neurriak hartu behar dira, esate baterako etxera iritsi ahal izateko erraztasunak, garraioak, ekipamendu publikoak eta lantokiak. Gizartean parte-hartzea sentsibilizatu eta laguntzen duten politikak eta neurriak ere beharrezkoak dira, besteak beste, zahartze aktiboan edo bizitza independentean oinarrituta, eta horretarako beharrezkoa da gizarte-komunikabideek daukaten eginkizun garrantzitsua nabarmentzea.

Pertsona nagusien eremuan, EAJk bizi-kalitatea eta zahartze aktiboa sustatu nahi ditu, era horretan autonomia mantentzea bultzatzeko; eta prebentzioa garatu, ariketa fisikoaren bidez arrisku-faktoreak gutxitzeko eta aisialdi sortzailea eta solidarioa garatzeko aukerak eskaintzeko.

Horretarako, EAJk honakoa proposatzen du:

- errenta-maila baxuena duten pertsona nagusien egoera ekonomikoa hobetzea;
- pertsona nagusien isolamendua saihestea, gizarte-jarduerak eta haien arteko harremanak sustatuz;
- talde honek dituen giza-baliabideak gehiago aprobetxatzea, haien autoestima eta parte hartze- eta gizarteratze-maila hobetzeko; eta
- pertsona nagusien parte hartzea bultzatzea, bizi diren komunitateko bizitzan eta aurrerapenean.

Eskubide-berdintasuna. Hala eta guztiz ere, prebentzioaren arloan ahalegin handia egin arren, bistakoa da mendekotasun-egoerak egon egongo direla. Horren aurrean, EAJk dio mendekotasun-egoeran dauden pertsonak gainerako pertsonak dituzten ingurune eta aukera berdinak izateko aukera izan behar dutela, hori horrela ez denean, haien mendekotasun-egoerari gizarte-bazterketako egoera lotzea oso posiblea delako, bien artean ondorio biderkatzailea sortuz. Horrekin guztiarekin, justifikatzen direnean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzu espezifikoak existitu

beharko dute. Zerbitzu espezifiko horiek egoera horretan dagoen inor ez baztertzeko moduan eratu beharko dira.

Erantzukizun publikoa. Mendekotasunaren garrantzia duen gai batek, zalantzarik gabe, erantzukizun publikoa behar du. Erantzukizun publiko horrek, alde batetik, eskubideak babestu behar ditu, batez ere eskubide horiek defendatzeko zailtasunak dituzten pertsonenak, esate baterako mendekotasun-egoeran dauden pertsonenak. Pertsona horiek, beste guztiek bezala, eskubide batzuk dituzte eta, bistakoa denez, eskubide horiek erabiltzeko eta babesteko mugak izan baditzakete (batzuetan oso muga handiak), norbaitek izan beharko du haiek babesteko ardura, eta pertsona horiek, azken batean, botere publikoak dira. Konpromiso publikoak gizarte-ongizateko sistema publiko eta orokorren egitura baten jarraipen proaktiboa islatzen du. Erantzukizun publikoa zerbitzuen egitura garrantzitsu baten diseinuan, antolamenduan, planifikazioan, hedapenean, bermean, finantzaketan, kontrolean eta balioztatzean.

Autonomia pertsonala sustatzea. Zerbitzuak eskaintzeko orduan eta, oro har, mendekotasunari dagokion esku-hartzean, pertsonen autonomia ahalik eta gehien bultzatu behar da, bai gaitasunak zaintzeko eta garatzeko, bai norberaren bizitza erarik onenean kontrolatzeko. Dagokion agindu teknikoarekin oreka mantenduz, ahal den neurrian, hainbat zerbitzuren arteko hautaketa erraztu behar da, eta zerbitzu horiek jarraitutasun- eta hurbiltasun-irizpideen arabera integratu edo antolatu behar da. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ingurune irekienak eta integratzaileenak eskaini behar zaizkie, era horretan haien familia- eta komunitate-ingurunean ahal bezainbeste parte hartzen jarrai dezaten. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin osoki esku hartu behar da, eta kontuan hartu dimentsio fisikoa, psikologikoa, juridikoa, orientaziokoa, soziala, espirituala eta haien eskubideen, duintasunaren eta nahiaren babes arduratsua.

EAJk uste du mendekotasunak pertsona guztiei galdegiten diela, guztiok familia-, komunitate- eta gizarte-egituren zati garen heinean, eta bertan egunero mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin topatu gaitezkeen heinean. Mendekotasunarekin lotuta dagoen gizarte-konpromisoaz hitz egiteko orduan, nahitaez elkartasun asimetriko baten aurrean gaude, hau da, pertsona zaurgarriak edo behartsuenak begiko dituen elkartasunaren aurrean.

Konpromiso profesionala eta etikoa. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin lanean ari direnak garrantzitsuak dira haien bizi-kalitatea sustatu eta bermatzeko. Pertsona horiek derrigorrezko konpromiso etiko eta morala izan behar dute mendekotasun-egoeran dagoen pertsonaren bizitza-proiektu pertsonalaren garapenarekiko. Era berean, garrantzitsua da etengabeko hezkuntza izateko jarrera eta konpromisoa eduki dezaten, mendekotasun-prozesuen izaera dinamikoa eta aldagarria dela eta.

Horretarako haien laneko bizi-kalitatea etengabe hobetu behar dute: haien lan baldintzek aberastasun eta garapen pertsonalerako aukera erakargarri nahiko eskaini behar dituzte.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten erakundeetan kudeaketa-erantzukizunak dituzten pertsonak ziurtatu behar dute erakunde horiek egitura antolatzaileak dituztela eta erabiltzaileen beharretara zuzendutako kudeaketa orokorra eta osoa bermatzen duten sistemak dituztela.

Familiari laguntzea. Gizarte-zerbitzuek, ikuspuntu komunitario eta integraletik, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzen dituzten familiakideak edo komunitateko kideak lagundu behar dituzte bereziki. Esku-hartzeak bizitza pertsonala, familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko lagundu behar du, baita gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna ere; izan ere, aurretik esan dugunez, tradizionalki, emakumeek izan dute zainketa informalaren ardura. Garrantzitsua da familiari emandako laguntzek eginkizun hori betikotu ez dezaten, baizik eta, familiakide guztien parte-hartzearen laguntzaz, egoera hauek gainditzen lagun dezaten.

EAJk egitura informalaren bidez eskainitako arretaren kalitatea hobetu nahi du, era horretan zaindutako pertsonen gaitasunak eta autonomia ahalik eta gehien garatzeko, eta zainketaz arduratzen diren pertsonen bizi-kalitatea hobetu, zainketak berekin dakarren zama arintzeko; edo, gauza bera dena, egitura informaleko laguntzaileak hainbat neurriren bidez laguntzea, bakoitzaren egoeraren arabera, familia-eremuari eragin diezaiokeen pixkanakako hondatzea saihesteko. Hori guztia, egitura informalaren eginkizun nagusia sustatzeko, eta gizarte- eta ekonomia-laguntza emateko orduan, erantzukizuna hartzen laguntzeko: informazioa, orientazioa, aholkularitza, hezkuntza, laguntza psikologikoa, norbere buruari laguntzeko programak, etab.

Edozein kasutan, programa- eta zerbitzu-aukera zabala eskaini behar zaie mendekotasuna duten pertsonari, era horretan laguntza-kalitate egokiarekin haien etxean egotea ahalbidetzeko, eta haien bizitzako baldintza materiala honakoen bidez hobetzeko:

- ekintzak haien etxeetan (laguntza teknikoak eta etxebizitza egokitzea),
- haien etxeetan oso denbora luzez egoten diren pertsonari arreta eskaintzea, teknologia telematikoen bidez (urrutiko laguntza),
- haien etxeetan gauzatutako zerbitzuak, eremu pertsonalean eta etxeko eremuan (etxeko laguntza), ondoko hauen bidez:
- lanera, ikasketetara eta aisialdira iristeko laguntza pertsonala lortzea ahalbidetzen duten zerbitzuak (laguntzaile pertsonala), eta
- arreta espezializatuko zentroetan, anbulategietan (eguneko zentroak eta okupazio-zentroak).

Laguntza teknikoen plana eta etxebizitzaren egokitzapenerako finantzaketa batera etorri beharko dira etxera iristeko eta gure herri eta auzoetako ingurune fisikoraetara iristeko erreztasun-planekin; hori gizarte-zerbitzuen eremutik haratago dago.

⇒ Zerbitzuak:

Urrutiko laguntza.

Etxeko laguntza.

Laguntzaile pertsonalizatua.

Eguneko zentroak.

Okupazio-zentroak.

Babestutako etxebizitzak.

Etxebizitza komunitarioak.

Egoitzak. Egoitzetako bi arretekin lotutako beharrak arreta berezia eskatzen du. Ezintasuna duten pertsonen zahartze-prozesua, haien bizitza osoan familiaren etxebizitzan egon diren pertsonena; eta bizitza independentea egiteko eta ezintasun fisikoaren eremutik datozen baliabideak eskatzea.

Zentzu horretan, etxea izatea eta lana izatea erabakigarria da edozein gizarteratze-prozesutan. Hala eta guztiz ere, ezintasuna duten pertsonen lan-munduan sartzeak zailtasun asko ditu, eta lana aurkitzea lortzen dutenen ehuneko baxuak hori erakusten du.

Ezintasuna duten pertsonen sarbidea ohiko lan-mundura zuzendu behar duen normaltasun-printzipioak gomendatzen du lan-araudiak berak arautu eta erraztu behar duela talde honen sarrera lan-munduan, hainbat modutan: kuotak, pizgarriak eta abantaila fiskalak ezartzea, etab. Egokitzapenez eta lan-araudia betetzeko eskaeraz gain, lan-munduan ezintasunen bat duten pertsonen integrazioari buruz, proposatzen dugu administrazioek lana topatzea errazten duten bitartekotza-zerbitzuak sortzea, eta lanbide-zentro bereziak bultzatzen jarraitzea.

Era berean, normalizazio- eta integrazio-printzipioak aplikatuz, administrazioek ahalegina egin behar dute garraio-bideak eta komunikabideak diseinatu eta ezartzeko eta herritar guztientzat sartzeko errazak diren gunek publiko zein pribatuak diseinatu eta ezartzeko.

Gizarte- eta osasun-arreta. Mendekotasunari aurre egiteko hurrengo urteetan erantzuna izan beharko duen erronketako bat.

Gizarte- eta osasun-arloko hainbat egoitza-unitate sortu behar dira, mendekotasun-egoeran dauden eta gizarte- eta osasun-zainketa izateko behar handia duten pertsonentzat.

Unitate hauetako erabiltzaileak honako hauek izango dira:

- ospitaleko alta eta bizi-itxaropen laburra duten pertsonak, baina zainketa aringarriak behar ez dituztenak eta etxera itzuli ezin direnak;
- ospitalean sartu ondoren gaixondo-aldian dauden pertsonak, edo osasun-egoera ahulean edo ezegonkorrean daudenak;
- asaldura-fasean dauden eta dementzia-prozesuak dituzten pertsona nagusiak;
- portaeraren nahasketa, agresibitatea, etab. duten pertsonak, egoitza bateko jarduera normala aldatu lezaketenak, baina halabeharrez ospitalean egon beharrik ez dutenak.

Lan handia dago egiteke mendekotasun-egoeran dauden pertsona askok haien duintasuna osoki onartuta ikus dezaten eta haien eskubideak erabili ahal ditzaten. Une erabakigarrian gaude, mendekotasunari ematen zaion erantzunaren garapenari dagokionez. Horrelako une batean eta mendekotasuna bezalako gai batek ahal beste ahalegin egitea merezi du, deliberamendu publikoko dinamiken alorrean, herritarren parte-hartzearen alorrean eta konpromiso solidarioaren alorrean.

5.4.3.- BAZTERKETA-ARRISKUA DUTEN PERTSONAK GIZARTERATZEA.-

Bazterketaren definizioa honakoa da: pertsona konkretuen eta pertsona-taldeen ezintasuna edo gaitasunik eza lana, heziketa, hezkuntza, kultura, osasuna, etxebizitza duina edo gizarte-babesa bezalako gizarte-eskubideen alorrean.

Izaera multidimentsionala dauka. Osagai ezberdinek ekarpena egin dioten gizarte-prozesuaren emaitza da, ez ezinbestean baliabide ekonomikoen gabeziari lotutako osagaiak, baizik eta eskubidea izanagatik ere, ondasunak eta baliabideak izateko gabeziari lotutakoak. Osagai horiek guztiak elkartu direlako, bazterketaren aurkako borrokan hainbat gizarte-agente eta erakunde daude tartean sartuta: heziketa, osasuna, lana, etxebizitza, gizarte-zerbitzuak.

Bazterketa-egoerak sortzen dituzten baldintzak oso ezberdinak dira, eta denboran zehar aldatu egiten dira. Euzkadin bazterketaren aurkako lehenengo legeak eta planak aldarrikatu zirenean, funtsezko elementua, bazterketa-egoeran egotea edo ez egotea zehazten zuena, lana zen. Gaur egun, lanbide-

eta jarduera-datuek enplegu osotik gertu dauden egoerak iragartzen dituzten bitartean, lanak ez du beti bermatzen arrisku-egoeratik kanpo egotea. Hala eta guztiz ere, gaur egun, gizarteratzearen oinarriak heziketa, lana eta etxebizitza dira.

Euskal gizarteak hainbat elkartasun-sistema lortu ditu, sortutako aberastasuna banatzeko sistemak, era horretan kide guztiek herritarren maila osoa lortu ahal izateko.

Bazterketaren aurkako borrokan, tresnarik garrantzitsuenak errenta-politikak dira, batez ere pentsioak. Pertsona askok, batez ere nagusiek, ezintasunen bat duten pertsonak eta emakume alargunek, oso pentsio txikiez edo pentsio ez-kontributiboez gain beste baliabiderik ez dute. Egoera horiek hobetzeko aukerak mugatuak dira. Gaur egun, euskal administrazioek ez dute eskumen arau-emailerik gai honetan esku hartzeko. Hala eta guztiz ere, eta gai hau aldarrikatzen jarraitzeari kalterik egin gabe, EAJren ekintza politikoak hobekuntzak eskatzera bideratuta egon behar du, eskumenak dauden tokian; eta EAJk gobernatzeko gaitasuna duen erakundeetan, pertsona horien egoera arintzen dituzten laguntza ekonomikoak antolatu behar ditu.

Euskal gizarteratze-sistema zuzenbide bikoitzeko eredu batean oinarritzen da: babes ekonomikorako eskubidea eta gizarteratzeko eta laneratzeko eskubidea.

Oso gizarteratze-baliabide zehatzak behar dituzten taldeak daude, hainbat arrazoiengatik bazterketa-egoeren aurrean zaurgarriagoak direlako. Talde horiek, guztiek behar ezberdinak dituztenez gero, irtenbide ezberdinak behar dituzte gizarteratze-prozesu bat ia ezinezkoa denean haien egoera arintzeko, emantzipazio-prozesu horiei laguntzeko eta bizitza independentea hasteko. Jokabide askok komunitate eremukoak izan behar dute, beste batzuek espezializatuak izan behar dute; batzuek izaera zehaztugabekoak eta beste batzuk denboraldi baterako.

Esku-hartzeak baliabide konbinatuak eskaini behar ditu. Pertsona batek arrisku-edo bazterketa-egoera egoteak eta espezializatutako gizarte-zerbitzuen parte-hartzea eskatzeak ez du esan nahi oinarritzko gizarte-zerbitzuak erabiltzeari uzten dionik, baizik eta guztiz kontrakoa.

Komunitatearen eremutik informazio-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaini behar dira, ingurune irekian esku-hartze komunitariorako baliabideak, norbere buruari laguntzeko taldeak, mentalizatzeko eta sentsibilizatzeko-kanpainak, premiazko harrera, gizarte-jantokiak, etorkinen arretarako baliabideak eta pertsona nagusientzako gizarte-zentroak.

Espezializatutako gizarte-zerbitzuen zeregina, gizarteratzearen eremuan, gizarteratze-prozesuan laguntzea da, eta gizarte-ingurunean eragina izatea bazterketa-arriskuak eta -prozesuak saihesteko, zuzentzeko edo arintzeko. Esku-hartzeko ibilbide nagusia honakoa izango litzateke: harrera; pertsonari eta inguruneari diagnostikoa egin; beharrak eta baliabideak ebaluatu; planifikatu eta programatu; esku-hartu; bestelako baliabide, instituzio eta erakundeekin koordinatu; irteera erregistratu, jarraitu, ebaluatu eta kudeatu.

EAJren gizarte-ereduan deskribatzen denez, gizarte-eskubideak erabiltzeak berekin dakar betebeharrak batzuk betetzea; betebeharrak horiek, funtsean, integrazioa bera erraztean datzate, gure gizarteak eskaintzen dituen baliabideak eta mekanismoak zuzen erabilia.

5.5.- Inmigrazioa

XXI. mendea migrazio-mugimendu handien mendea izango da, aukera ezagatik, gerrek, ezegonkortasunak eta pobrezia eremu osoetan eragindako bizitzeko ezintasunagatik eta Iparraldeko eta Hegoaldeko aberastasunen artean dagoen zulo gero eta handiagoagatik.

Migratio-fenomenoak ez dira berriak Euskal Herriarentzat. Historian zehar, Munduko herri guztiek emigratu dute eta etorkinak jaso dituzte. Gu geu, urteetan zehar, gure herritik kanpo etorkizun hobe bilatzen genuen emigranteak izan gara, eta gure artean bizitza eraiki nahi zuten etorkinak jaso ditugu.

Are gehiago, XII. mendetik aurrera, euskaldunok bidaiatu egin dugu, eta hainbat herrialdetan kokaleku iraunkorrak zein aldi baterakoak osatu ditugu. Herrialde eta alderdi gisa nazioz gairik errealitatea osatzen dugu, mundu osoan hedatu gara eta Euskal Herriko 7 herrialdeez haratago bizi gara. Nazioz gairik errealitate hori eta belaunaldien artean integrazioarako munduko euskaldunek bizi izan duten esperientzia sakon eta garrantzitsu hori, egokia da Euzkadin bizi diren etorkin berrien interkulturalitate- eta integrazio-ekimenak antolatzeke orduan.

Munduko euskaldunen esperientzia eredu paregabea da, integrazioarako eredu originala erakusten duelako, eta harrera egin duen herrialdeak nortasuna mantentzen duelako. Emigratioaren esperientzia eta praktika hau, kultura-arteke integrazioan eta aniztasunean oinarrituta herrialdeak eraikitzea, garrantzitsua da Euzkadiko etorkinen integrazioaren eztabaidari ekiteke orduan.

Azken bi mendeetan asko izan dira Euzkadira migratu duten pertsonak, batez ere hiriguneetara, meategi- eta siderurgia-industrietan lan egitera. Pertsona horiek iristeak eta kokatzeak lan-, ekonomia-, gizarte-, politika- eta kultura-ondorio handiak izan zituen. Gaur egun Euzkadik prozesu hori hartu du oinordetzan. Iritsi zirenei eta hartu zituztenei arraroa egingo zitzaieen kultura ezberdinetako pertsonekin erlazionatzea. Talka handia izan zen: ohitura ezberdinak, kultura ezberdinak eta hizkuntza ezberdinak. Ondoren, egonkortasun erlatiboko aldia iritsi zen, 70, 80 eta 90. hamarkadetakoko krisi industrial eta ekonomikoekin batera. Egun, egoera aldatu egin da, eta garapen ekonomikoak bizitza hobe bilatzen duten beste lekuetako jendea ekarri du, berriz ere.

Datu ofizialek ez dute zalantzarako aukerarik ematen. Azken urteotan Euzkadiko etorkinen kopurua boskoiztu egin da. Europako beste eskualdeetako ratioetara heltzen ez bada ere, herritarrek adierazgarritzat hartzen dute, ziurrenik inmigrazioa Euzkadin baino handiagoa den European, inmigrazioa pixkanaka gertatu delako, hainbat belaunalditan, eta Euzkadin inmigrazioaren hazkunde-abiadura askoz azkarragoa da; horrek guztiak beharrezkoak diren elkarbizitza eta gizarteratzea zail ditzake.

Ez da gertakari berria euskal herritarrentzat, duela hamarkada batzuk ekarri zigun gaia ekartzen digun errealitatea da: banatzen gaituzten eragozpen kultural eta linguistikoak gainditzea, eta pertsona horiek gizarteratzeko eta kulturalki integratzeko oinarriak finkatu, bazterketa-egoerak saihesteko. Euzkadira heltzen diren pertsona asko krisi ekonomikotik, gerratik edo premia gorrietik ihesi datoz; asko dira ahaleginagatik bizia arriskuan ipintzen dutenak, horregatik lege murriztaileek, oztopo administratibo edo fisikoek, ez dituzte geldituko. Egoera horren aurrean, zentzuzkoena gizarteratze-prozesuetan ahalegintzea da, bazterketa-egoerak, xenofobia, elkar bazterketa eta gatazka saihesteko.

Migrazio-fenomenoak baldintzatzen dituzten indarrak ez dira zentzu bakarrekoak. Milaka pertsona migrazio-prozesua hastera bultzatzen dituzten arrazoiak ez dira bakarrik bizi-baldintzak hobetzea eta etorkizun hobea izatea; garatutako herrialdeek atzerriko laneku merkea eskatzen dute haien sistema ekoizleak mantentzeko eta jaiotza-tasak eta populazioaren zahartzeak eragindako desorekak orekatzeko, eta bi fenomeno horiek ongizate-maila handia duten gizarteetan gertatzen dira.

Euzkadi ez da salbuespena, populazioaren zahartzeari eta jaiotza-tasa baxuei aurre egiteko inmigrazioa behar du eta beharko du. Nazio Batuen aurreikuspenen arabera, hemendik 2050. urtera bitartean, Europak etorkin-kopurua bikoiztu beharko du jaiotza-tasa baxua orekatzeko.

Beraz, azken urteotako fenomeno migratorioak eta etorkizunerako aurreikuspenek egitura-fenomeno baten aurrean kokatzen gaituzte. Gaur egungo inmigratioak, emigratzen duten pertsonen beharrei eta gure gizartearen beharrei erantzuten dio; gure gizartean, azken urteotan, laneskua behar duten ekonomiaren sektore handiek atzerriarrekin betetzen dituzte lanpostu horiek, eta atzerriar horietako asko legez kanpoko egoeran daude. Lanekuaren beharra ekonomiaren sektore hauetan zaharra da nekazaritza, arrantza, etxeko lana –etxea, adin txikikoak eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzea–, ostalaritza edo eraikuntza bezalako eremuetan.

Gerrek eta beharrak derrigortutako inmigratorako irtenbiderik onenak jatorrizko herrialdeetan egon behar du, nazioarteko politikak garatu eta estatu horien demokratizazioarako aldaketa politikoa gerta dadin, gutxi batzuek neurrigabe aberastea saihesteko gehiengoaren beharraren eta esplotazioaren kontura, atzerriko inbertsioak ahalbidetzeko gizarte-justiziaren eta hangoen kulturari eta duintasunari zor zaien ikuspuntutik. EAJK, present dagoen foroetan, lehentasunezkoztat joko du ikuspuntu politikoa. Hori gertatzen ez den bitartean, gure Herrialdean ezarri beharko ditugu etorkinak gizarteratzeko politikak.

Testuinguru honetan EAJK badaki, gizarte-politikan aritzeko printzipioei eta balioei jarraiki (batez ere duintasunari eta elkartasunari), etorkinei ezin zaiela soilik lan-ikuspegitik begiratu, eskubideak eta betebeharrak dituzten herritar gisa baizik. Aske izateko eskubidea, berdina izateko eskubidea, aukeratzeko, hitz egiteko eta osasun- eta gizarte-laguntza izateko eskubidea, sortzen laguntzen duten aberastasuneko ondasuna jasotzeko eskubidea, gizarte honen elkartasuna jasotzeko eskubidea. Eskubide horiekin guztiakin batera, haiei lotuta dauden betebeharrak eta konpromisoak onartu beharko dituzte. Oinarrizko eskubiderako eta askatasunerako betebeharra, guztiok ordaintzen ditugun zergak ordaintzeko betebeharra, gure gizartearen gizarte- eta kultura-aniztasuna onartzeko eta laguntzeko betebeharra, batez ere euskaldunok hain berezko eta bereizgarri dugun euskara ikasi eta erabiltzeari dagokionez.

Zentzu horretan, euskal erakunde publikoek gizarte-ekintzak, ekintza politikoak eta ekintza arau-emaileak garatu behar dituzte, etorkinak gizarteratzen laguntzeko, ongizate- eta elkarbizitza-bermearekin. Horrek barne hartzen du lana daukaten etorkinen egoera legezkatzea, gero eta ohikoagoa den ohitura saihesteko, hau da, etorkinen zati bat gizarte-laguntzen bidera eramatea eta aldi berean ezkutuko merkatuan mantentzea, inolako kontrolik gabe, legez kanpokoa izateaz gain bidezkoa ez delako.

Hainbat txostenek nabarmentzen duenez, legez kanpoko egoera administratiboan dagoen etorkin-kopuruak, era informalean erabilia, etorkinen laneratzea zailtzen du eta ondorio kaltegarriak dakartza gizarte- eta ekonomia-ingurune osoarentzat. Ezkutuko ekonomiak oso ondorio kaltegarriak ditu lan-merkatuak ondo funtziona dezan: segmentazioa handitzea, lan-baldintzak apaltzea, gizarte-bazterketa, enpresen elkarlehia desleiala, diru-sarrerak galtzea eta zerbitzu orokorrak onartzetik datorren gizarte-babeseko gastua.

Horregatik, EAJK uste du ezinbestekoa dela dagokien erakundeei bizi dugun errealitatearekin bat datorren politika egitea eta eskatzea; eta premiazkoa da gobernu espainiarrak eta frantsesak gizarte-errealitate honi erantzuna ematea, lan-kontratua izateko aukera duten etorkinen egoera legezkatzeko.

Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da hori guztia laneko dimentsiotik eta inmigrazioaren dimentsiotik haratago azaltzea. Eskubideak eta betebeharrak dituzten pertsonak, gizonak eta emakumeak, osatzen dute inmigrazioa, eta horiek gure herrialdearen partaide aktiboak dira. Euskal gizartearen eta euskal erakundearen erronka elkarbizitza antolatzea da, eskubide horiek errespetatzeko, betebeharrak onartzeko eta “guztion artean komunitatea osatzeko”. Eginkizun hori erakundeei eta gizarte osoari dagokio: banakoei, familiei, eskolari, gizarte-zerbitzuei, osasun- eta lan-arloari, arlo kultural eta politikoari.

Horregatik, EAJK, bere gizarte-oinarritik eta ordezkatzeko dituen erakundeetatik, bere tradizio humanistarekiko leial jokatuz, prozesuak bultzatu behar ditu eta ekimena izan, gure artean bizi diren pertsonak gu guztiok barne hartuko gaituen komunitate batean bizi daitezen, eta bazterketa-prozesurik gerta ez dadin.

EAJk sustatu nahi duen inmigrazio-politika honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- Pertsonen joan-etorriak legalki kudeatzea, berdintasun-printzipioak errespetatzeko eta eskubideen eta betebeharren berdintasuna onartzeko.
- Etorkinekin batera lan egitea, lagundutako garapen-ekimenen bidez, gure herrialdea, herrialde-hartzailea, jatorrizko herrialdeekin uztartu dezan, eta inmigrazioa onuragarri egiteko bi aldeentzat eta etorkinentzat.
- Kulturen arteko elkarbizitza sustatzeko politika eta mekanismo publikoak, kultura- eta gizarte-errealitatea eta nortasun propioa onartzeko, gure herrialdera datozen kulturen arteko komunikazioarekin batera, elkar onartzea eta pertsona ezberdinen arteko elkar ulertzea etorkizuneko elkarbizitzaren oinarria izango dela jakinez.
- Etorkinei gure kulturen sartzea erraztuko dieten politikak ezartzea, euskara eta euskal kultura ikasteko laguntzen bidez, etorkinak euskara ondoen ikasten den hizkuntz-ereduetan integratzen saiatuz.

Aterpe-gaietan, beharrezkoa da legeak zehatz aplikatzea aterperako eskubidea bideratzeko orduan.

Helburu horiek betetzen laguntzeko, EAJk badaki zeintzuk diren biderik onenak “komunitatea egiteko”, gure gizartean dauden eta egongo diren pertsona guztien arteko etorkizun-ikuspegia sortzeko: bertan hartzen diren gaien eta erabakien partaide egitea.

Euskal arbasoak dituzten eta Euzkaditik kanpo bizi diren pertsona asko une zailetan daude, langabezia-tasa handiak dituzten herrialdeetan; beste pertsona batzuek emigratu behar izan zuten Euzkadin nahikoa lanik ez zegoenean.

EAJk arreta-politikak sustatuko ditu premiazko egoeretan dauden eta Euzkadira itzultzea erabakitzen duten euskaldunentzako eta haien ondorengoentzako.

5.6.- Etxebizitza

Lehen etxebizitza lortzeko ezintasuna euskal gizartearen arazorik larrienetakoa da, eta beste arazo askoren sorburua da, esate baterako, pobreziaren aurka borrokatzeko eta gizarte-laguntzak emateko arazoaren sorburu.

Paradoxikoki, gero eta etxebizitza gehiago eraikitzen dira eta, aldi berean, jende gehienak ezin du lehen etxebizitzarik lortu. Prezioa pixkanaka igotzeak inbertsioak egiteko esparrurik onena bihurtu du eta, nahiz eta eraikuntzaren

booma bizi, eta gero eta lurzoru eskasagoa kolonizatu, gazteek eta etxebizitza behar dutenek ezin dute lortu; eta lortzekotan, hipoteka edo alokairua ordaintzeko eskaini behar den kopuruak ia pobrezia-egoeran kokatzen ditu eta, batzuetan, gizarte-bazterketako egoeretan.

Etxebizitzaren prezioa garestitzea eta pertsona askok, bereziki gazteek, lehen etxebizitza lortzeko duten zailtasuna, ekonomia- eta gizarte-faktore askoren emaitza da, eta zaila da soilik konpontzea erakundeen eta politikoen ekimenaz.

Azken urteotan, 93 eta 94ko krisi ekonomiko larriaren ondoren etorri zen susperraldi ekonomikotik hona, gazteak, gizonak eta emakumeak, era masiboan sartu dira lan-merkatuan eta etxebizitzaren merkatuan. Eskaria handitzeak prezioen handitzea ekarri zuen, baita espekulazio ekonomikoa ere.

Gobernatzen dituen erakundeetatik, EAJk irtenbide legalak, fiskalak eta exekutiboak ipini ditu abian lehen etxebizitza lortzea errazteko, bai planifikazioaren eremutik, bai Ogasunaren eremutik, bai eremu exekutibotik. Baina esku-hartze publikoek, ekonomia- eta gizarte-dinamika honek, etxebizitzaren prezioa igotzen jarrai zezan saihestera bideratuak, ez dute berehalako ondorioirik izan. Etxebizitzaren, lurzoruaren, bere erabileren, planifikazioaren eta arautzen duen legearen merkatuan egin den esku-hartzeak zailtasun handia dauka eta epe luzerako ondorioak ditu. Horregatik, garrantzitsua da aurre hartzea, bakoitzak ahal duen eremuan, eta ahaleginak biltzea.

EAEn Lurzoruaren lege berria indarrean sartzeko, ahalbidetu du gure herri eta hirietako garapenaren oinarritzko legeak finkatzea eta, horrekin batera, besteak beste, etxebizitza-politikaren oinarritzko legeak.

Gaiak Erakundeen eta sektoreko profesionalen interesa gaitzen du, aldi berean gertatu direlako gaurkotasunaren lehen orrian zeuden urbanizazio-eskandaluak eta familia propioa sortu nahi duten askok etxebizitza eskuratzea gero eta zailagoa izateak.

Toki-eremuan, EAJk gaitasun handiagoa eskatu du babestutako etxebizitza sustatzen laguntzeko; horrela, berezko araudiaren bidez, herrian, babestutako etxebizitza sustatu eta ordenatzeko, era aktiboagoan eta malguagoan esku hartzeko Plangintzaren bidez, eta herri bakoitzeko gizarte-errealitateari egokitua, denek nabarmentzen duten arazoaren gizarte-lehentasunera egokitua, modu aktibo eta autonomoagoan konpontzen laguntzeko.

Udaletxeei konponbide desberdinak eta zehatzak eskaintzean datza, etxebizitza lortzeko zailtasunak dituen populazioaren gehiengoari laguntzeko.

Neurri horiekin batera, EAJk badaki beharrezkoa dela gai honi hedadura osoan ekitea eta erakunde guztiek arazo honi benetako konponbidea emateko ahaleginak bateratzea; horregatik proposatzen du, printzipio hauetan oinarrituta, gaiari erantzuna ematea:

⇒ *BABESTUTAKO ETXEBIZITZA*

Lurzorua baliabide eskasa eta berriztaezina dela kontuan hartuta, etxebizitza ondasun eta gizarte-beharra dela ulertuta, EAJk hiri-eredu kohesionatu eta integratuaren alde egiten du, garapen urbanistiko berrietan gizarte-banantzea eta lurraldearen banantzea saihesteko.

EAJk badaki gaur arte indarrean egon diren neurriak, etxebizitza merkatu librean eta babestutako etxebizitza tradizionala, ez direla gai izan etxebizitza lortzeko bitzita-proiektu gisa etxebizitza behar duten pertsonen gehiengoarentzat. Horregatik, beharrezkotzat jotzen du parametro berrietatik babestutako etxebizitza sustatzea.

EAJk beharrezkotzat jotzen du babestutako etxebizitza sustatzea. Horretarako, beharrezkoa da ahaleginak biltzea, administrazio guztiek era aktiboan parte hartzea, baina udalaren esku-hartzea nabarmenduz; izan ere, udaletxeek kudeatzeko gaitasun handia daukate, benetako arazotik, bizilagunengandik, eguneroko kudeaketatik gertu daudelako.

EAJk beharrezkotzat jotzen du erakundeetako kudeatzaile guztien konpromisoa, babestutako etxebizitza gisa eraikitzen den gehiengo ordenatzeko, eta horren barruan sartzen dira bai babes ofizialeko etxeak, bai tasatutako etxebizitza tradizionala.

Tasatutako etxebizitza. Tasatutako etxebizitza etxebizitzarik ez dutenenei zuzenduta dago, eta salneurri mugatua dauka.

Salneurri tasatua duen etxebizitzak, lehen etxebizitza eta etxebizitza bakarra izateaz gain, lurzoruaren kostu espekulatiboa saihesten du; lurzoruaren prezioak, eraikuntzaren koste erreal guztiak, urbanizazioaren kostuak eta saltzean lor daitekeen mozkinik handiena finkatu ditu; beraz, haren benetako kostuak finkaturik geratzen dira eta haren salneurria etxebizitza librearena baino askoz txikiagoa da.

Tasatutako etxebizitzen ehuneko handiak ezartzeak honakoa ahalbidetuko du: eraikitzen den etxebizitza berria ohiko etxebizitza bihurtzea; ordaintzen den prezioa benetako kostuarekin bat etortzea; ekonomiaren beste sektoreetan gertatzen den bezala; eta azken urteotan izan diren etxebizitzaren eta soldaten arteko ezberdintasun gero eta handiagoak geldiarazi. Zentzuzko epean, pertsona batek etxebizitza ordaintzera eskainitako dirua bere diru-sarrera garbien %30 baino gutxiago izatea da xedea, eta horrek ondorio positiboak izango ditu ekonomian beran, herritarrek gastatzeko eta inbertitzeko diru gehiago izango baitute.

Babes ofizialeko etxebizitza. BOE alokairuan. Botere publikoetatik bermatu behar dena etxebizitza lortzea denez, eta ez halabeharrez etxebizitzaren jabetza, EAJk beharrezkotzat jotzen du gizarte-etxebizitzaren eskaintza publikoa alokairuzko gizarte-etxebizitzara bideratzea. Etxebizitza publikoa

esleitzeko modurik bidezkoena alokairua da, honako arrazoi hauengatik: une bakoitzeko benetako beharrei erantzuten die, lan-merkatuaren arabera populazioa mugitzea ahalbidetzen du eta gizarte-ekimen hau sortu zenean zituen helburuak lortzen laguntzeko modurik onena da, hau da, onuradunek haien egoera ekonomikoa hobetu dutenean edo beste etxebizitza-mota bat lortzen dutenean, alokairuan dagoen etxebizitza beste pertsona batzuei eskaini dakieke.

Diru-sarrera handiagoak dituzten pertsonentzat edo egoera-ekonomiko hobearen lortu ondoren gizarte-alkairua utzi eta besteei lekua uzten dieten pertsonentzat, beharrezkoa da etxebizitza lortzeko beste aukerak egikaritzea. Zentzu horretan, garrantzitsua da tasatutako etxebizitza eskuragarri egotea, etxebizitza librearen merkatua, gaur egun, ez delako eskuragarria populazioaren gehiengoarentzat.

Arrazoi horiengatik, EAJk beharrezkotzat jotzen du ahaleginak batzea eta erakundeek esku hartzea, eraikitzen ari den etxebizitza gizarte-eginkizunari lotzea, planeamendu-arauak uztartuz, eraikuntza berrien zati handi bat babestutako etxebizitzarako gordetzea, bigarren etxebizitza lortu nahi dutenek merkatu librean nahi adina eskaintza dutela ulertzearekin batera.

Ondorioa. Planteamendu horrek bermatzen du egia bihurtzea gizakien bizitzarako etxebizitza eraikitzeko lurzorua eta lekua okupatzearen helburua: bizitza-proiektu bat garatzeko etxebizitza edukitzea.

Euskal lurraldean gizarte-alkairura bideratutako etxebizitza etengabe gordetzeak ahalbidetuko du lurraldeko homogenea den etxebizitza-parkea sortzea, ekonomiarik ezegonkorrena dutenek, asko mugitzen direnek, oraindik etorkizunerako plan finkorik ez dutenek edo banantzearen ondoren egonkortasuna galdu dutenek etxebizitza alokatu ahal izateko.

EAJk beharrezkotzat jotzen du planteamendu hori betetzea, lurzoru berriaren okupazioak –etxebizitza berria eraikitzeak– gizarte-eginkizuna bete dezan, azken urteotako joera gelditzeko: etxebizitza ondasun ekonomiko soiltzat eta soberakinak dituzten ekonomientzat inbertsiorik hoberentzat hartzea, populazioaren zati handi bati etxebizitza lortzea ezinezko egin diona, ia gizartearen esparru guztietan.

Horrela, beharrezkoa da etxebizitza gordetzeko derrigortasuna eraikuntza berri guztiei ezartzea, lurzoru urbanizagarri eta urbanoaren arteko ezberdintasunaren ondorio diren (BOEen ehunekoak saihesteko) gaur egungo iruzurrak saihesteko, oraingo formulak nahikoa ez izatearen arrazoia.

Laburbilduz, EAJk azaldutako neurriak sustatzearen alde egiten du, honako helburu hauekin:

- Etxebizitzaren gizarte-eginkizuna bermatzea.

- Alokairuan ipintzeko etxebizitza-parkea sortzea, gazteen emantzipazioa bultzatzeko, populazioa lanaren arabera mugitzea bultzatzeko eta laguntza behar duten pertsonen txandakatzea bultzatzeko; gainera, EBren gomendioak beteko dira, alokairuan ipintzeko etxebizitza publikoaren parke garrantzitsua finkatzean.
- Babestutako etxebizitzaren eta etxebizitza librearen artean dagoen hutsune handia betetzea, eta populazioaren sektore guztiei praktikoki lehen etxebizitza bermatzea.
- 50 urterako hipotekatzeak dakarren itotzea saihestea.
- Etxebizitzaren prezioa finkatzeak automatikoki lurzoruaren benetako prezioa ekarriko du, eta espekulazioa saihestuko du.
- Erabilitako etxebizitzaren prezioak eta etxebizitza berri eta librearen prezioak arrazionalizatu eta murriztea, etxebizitza librearen merkaturako babestutako etxebizitza-kopurua ezarriko duen eskumenaren bidez. Era berean, errentagarritasun-itxaropenak jaitsita, etxebizitza hutsaren merkatua agertzea eragingo du.
- Babestutako etxebizitza etxebizitzari zuzendutako guneetan eraikitzea, BOEak eraikitzeke dohaindutako guneak eta ekipamendu publikoa erabili behar izan gabe. Dohaindutako guneak aldeztatik zehaztutako xederako erabili ahal izango dira, hau da, biztanleentzako lasaialdi- eta aisaialdi-gune gisa, eta horrek gure hiriguneen bizi-kalitatea areagotuko du.
- Eraikuntza berria inbertsiorako aukera izatea eragiten duen dinamikarekin amaitzea, etxebizitza berri eta librearen kopurua nabarmen mugatuz.
- Sistemaren jasangarritasuna bermatzea, bigarren etxebizitzak eraikitzeke lurzoru berriak eraikitzea saihesteko. Era horretan, etxe hutsen parkea murriztuko da eta posible izango da datozen belaunaldientzako erabilgarria den lurzoru eskasaren zati bat uztea.
- Alokairuan dauden etxebizitza pribatuen merkatuan sartzea erraztuko duten lege berrien egokitzapenean aurrera egitea.

5.7.- Hirugarren Sektorea

Euskal gizartearen nortasun-ikur tradizionalak bat borondatezko erakunde oso egitura zabala izan da. Gizarte-zerbitzuen kasuan, herritarrek adierazteko eta antolatzeke baliabidea izateaz gain (pertsona gaixoentzat eta haien familientzat), erakunde hauek –orain Hirugarren Sektore gisa ezagutzen ditugunak– zerbitzuak eskaini dituzte; aitzindariak izan ziren, euskal erakundeek gizarte-zerbitzuak garatzeko gaitasunik eta baliabiderik ia ez

zutenean, eta orain ezinbesteko laguntzaileak dira kudeatzeko duten gaitasunagatik, esperientziagatik eta ordezkartasunagatik.

Hirugarren sektorearen (edo irabazi asmorik gabeko sektorearen) barruan berariaz esku-hartze sozialean ari den erakunde-talde bat dago: gizarte-zerbitzuen eremuan lan egiten dutenak eta izaera gizarte-osasuneko, gizarte-hezkuntzako, soziokulturaleko edo lan- eta gizarte-ekimen asko, eta horiek esku-hartze komunitariotik nazioarteko lankidetzarako tartean dagoen guztiaz arduratu daitezke.

Hirugarren sektoreak Euzkadiko esku-hartze sozialean egin duen lana erabakigarria izan da eta erabakigarria da. 60 eta 70. hamarkadetan, elkartze-mugimendu garrantzitsu batek denbora, ahalegina eta ardura eskaini zieten ezintasunen bat zuten pertsoneri, bazterketa-arriskua zuten taldeei eta laguntza behar zuten beste batzuei.

Euskal erakundeek gizarte-zerbitzuak gehitu zizkieten haien zerbitzuei, eskumenak eta baliabideak lortzen zituzten heinean. Une honetan gobernuaren jardueraren funtsezko zati dira, eta Ongizate Estatuaren laugarren oinarritzat aurkezten dute haien burua. Testuinguru horretan, beharrezkoa da Hirugarren Sektorearen definizio berria gizarte-zerbitzuetan.

Ez dira falta Hirugarren Sektore horren beharrik eza aldarrikatzen duten ahotsak; egindako lana eskertzen dute, baina administrazioari ematen zaio protagonismo guztia. EAJk uste du gizarte-jardueran Hirugarren Sektorea kontuan ez hartzeak haien oinarritzko euskarririk gabe utziko lukeela gizarte-zerbitzuen garapena.

Orain ditugun behar eta gizarte-arriskuen garrantziak eta zailtasunak ezinbesteko egiten dituzte erantzuna emateko gailu posible guztiak; familia- eta komunitate-egitura guztiek, administrazioek, Hirugarren Sektoreko erakundeek eta ekimen pribatuak esku-hartze sozialean egon behar dute.

Ondo antolatutako sistema da, botere publikoei eskatu behar zaie beharrik handiena duten herritarren beharrik asebetetzeko orduan orokortasuna eta berdintasuna egoki berma dezaten, politika publiko sendo, iraunkor eta jasangarrien bidez.

Hirugarren Sektorearen ekarpena onartu behar da, pertsonen eta komunitatearen parte-hartze aktibo, borondatezkoa eta solidarioa antolatu eta eskuragarri egin duelako, gizarte-arazo eta -erronkei ekiteko orduan. Gure gizartea, euskal gizartea, gizarte solidario eta mobilizatua da, eta bere Hirugarren Sektoreak borondatezko lanaren balioa gaineratzen dio, horregatik haren jarduera eta parte-hartzea erraztu behar da zerbitzuak eskaintzeko orduan.

Hirugarren Sektoreak gutxieneko batzuk bete behar ditu Administrazio Publikoekin eta gizartearekin berarekin duen erlazioan:

- Hirugarren Sektoreari eta administrazio publikoari zentzua ematen dion eginkizuna betetzen laguntzen duten ikuskerak eta balioak landu beharko ditu etengabe.
- Herritarrak sentsibilizatzeko eta dinamizatzeko erronka bere gain hartu beharko du, herritarrak gizartearen eraldaketan kritikoki eta aktiboki sartzeko.
- Kudeaketaren modernizazioa bere gain hartu beharko du, era horretan esku-hartze sozialak eskatzen dituen prozesu konplexuetan era jasangarrian sartu ahal izateko.
- Administrazio publikoak ahalegina egin beharko du Hirugarren Sektorearekin zerikusia duten izaera orokorreko legeak eta politikak egiteko eta aplikatzeko, era horretan askotan egon diren mesfidantzak eta susmoak gainditu ahal izateko.
- Erakundeek Hirugarren Sektoreak gizarte-politiketan duten parte-hartzea antolatu beharko dute, erlazio hori definitzen eta egonkortzen duten ekimenen bidez, eta era berean erakunde bakoitzak dituen funtzioen garapen indibidual egokiaz arduratu, sinergien batuketak herritarrei onura ekarriko diela jakinda.

Haien aldetik, Administrazio publikoek ere printzipio batzuk ezarri beharko dituzte hirugarren sektorearekin dituzten harremanetan.

6.- FINANTZAKETA

Eskubide subjektiboen onarpenean oinarritutako gizarte-zerbitzuen sistema eraikitzeke apostu ausarta egitean, lehen mailako gai gisa, aipatutako eskubideak onartuz ematen diren zerbitzuak finantzatzea proposatzen da.

EAJrentzat benetako erronka da gizarte-zerbitzuen sistema zentzuduna finantzatzea. Horrek berarekin dakar hurrengo urteetan hazten jarraituko duen gastu bati nahikoa baliabide ematea, gastua onartzeko sistema zalantzan jarriko duten aurrekontu-tentsiorik gabe.

Azken finean, finantzaketaz hitz egiteak esan nahi du finantzaketa bezalako gaiei aurrekontu-politiken bidez erreferentzia egitea, baita erabiltzaileen parte-hartzea zerbitzuak finantzatzeko orduan ere (baterako ordainketa).

Gizarte-zerbitzuen finantzaketari buruzko ezbadaida nagusiak (gaur egun mendekotasun-egoeretatik eratorriak, batez ere) erreferentzia egiten dio

arretaren erronkei aurre egiteko beharrezko diru-sarrerak bermatzen dituzten politikak eratzeko dagoen beharrari, epe luzean sistemaren egonkortasuna arriskuan jarri gabe. Gastuaren gorakako eboluzioaren aurrean, galdera da zein neurriekin egin ahal zaion aurre horrelako igoera bati: aurrekontu-politiken bidez, gain hartu daitekeen baterako ordainketaren bidez edo zorpetzearen bidez.

Egokia litzateke zergen bidezko finantzaketa eta kontingentzia-sistema bati egindako kotizazioen bidezko finantzaketa bateratzea. Horrela, EAJn uste dugu mendekotasunaren arretarako oinarritzko baldintzak finantzatzeko bide egokia kontingentzia berri bati, mendekotasunari, egindako kotizazio-erregimen espezifikoa dela, Batasunaren Itunean ezartzen den bezala.

Orain arte bi bide proposatu dira gizarte-zerbitzuen sistema finantzatzeko: kotizazioak eta zergak. Herritarrek presio fiskala handitzea ulertu eta onartuko dute eta, beraz, nahi ditugun ondorioak izango ditu, ahalegin ekonomiko horrek finantzatzeko dituen politika publikoak legitimatzen dituen heinean. Horregatik, beharrezkoa da herritarrei sortu nahi dugun ongizate-sistemaren onurak erakustea, guztion artean ordaindu beharko duguna.

Azkenik, eta sistemari baliabide gehiago emateko formulez hatarago, erabiltzailearen parte-hartzeari ekitea beharrezkoa da zerbitzuak finantzatzeko, orokortasunaren printzipioan oinarrituta, beti ere; hau da, inori ez zaio beharrezko arreta kenduko ordaintzeko baliabide ekonomikorik ez badu; eta, era berean, inor ez da zerbitzu-sistema publikotik kanpo geratzeko baliabide ekonomikorik ez izateagatik.

EAJren ikuspegia deskribatutako ereduak ikertu eta konbinatzearen aldekoa da, justizia banatzailearen eta berdintasunaren printzipioak egikaritzeko, diru-sarreraren kopurua zehazteko eta hainbat zerbitzu ordaintzeko –batez ere egoitza-izaerakoak–, errenta eta asebate behar duen pertsonaren ondarea kontuan hartuta.

II.- GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA

1.- SARRERA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun legea onetsi zenetik hainbeste hamarkada igaro eta gero, emakumeek diskriminatuta jarraitzen dute hainbat eremutan, nahita zein nahi gabe, era zuzenean edo zeharkakoan. Lehen begiratuan neutralak eman dezaketen politikek, esanahi eta eragin ezberdina daukate emakumeen eta gizonen artean, eta ezberdintasun handiagoa eta emaitza eskasak lor ditzakete. Bestalde, emakumeen eskubide indibidualak onartzea ez da nahikoa izan benetako berdintasuna lortzeko.

Gizonen eta emakumeen arteko eginkizunek eta erlazioek bien bizitza egituratzen dute. Emakumeak, oro har, desabantaila-egoeran daude politika eta programa publikoetan, azken hauek ez dituztelako onartzen emakumeek haien gain hartzen duten arreta-kopuru handiagoa, haien lan-bizitzan dituzten portaera ezberdinak, baliabideak lortzeko aukera urriagoa eta haien zaurkortasun handiagoa etxeko indarkeriaren aurrean eta sexu-erasoen aurrean. Gizonek ere desabantailak izaten dituzte lantokietan, baldin eta haien kulturak ez badu onartzen gizonek familia-betebeharretan duten ardura. Bi sexuek ondorio negatiboak jasaten dituzte, haien eginkizunetatik eta beharretatik eratoritzen diren estereotipoek eraginda.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde hainbat hamarkada igaro ondoren, gaur egungo kezka honetan datza: emakumeek garapenari egin dioten ekarpena identifikatzean eta politika publikoek emakumeengan zein gizonengan izan duten eragina ezagutzean. Horren ondorioz, hainbat eremu identifikatu dira, mikroekonomia esaterako, zeinak neutralak zirela uste baikenuen, eta non genero-erlazioek oso eragin garrantzitsua duten. Arrazoi horregatik, berdintasunaren gaiak soilik emakumearen eremuko izateari utzi dio eta gizartearen ekonomia- eta gizarte-garapenean txertatu da.

EAJk badaki paradigmaren aldaketa honi ekin behar zaiola eta EAEko erakundeetatik Lege baten buru izan da, horren bidez egitura-arazoa duen fenomeno honi ekin ahal izateko, behar diren bitartekoak erabilita. Berdintasunerako IV Planean zehazten denez, EAEk dagoeneko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, dauka Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako, lege garrantzitsua gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak gainditzeko, horietako asko oraindik existitzen diren genero-erlazio transbertsaletan oinarrituta. Nafarroa, “Nafarroako Foru Erkidegoko emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako I. Plana 2006-2010” delakoarekin, lehen pausuak ematen hasi da, baina ez dauka EAEk duenaren pareko legerik.

EAEEn indarrean dagoen Berdintasunerako Legea *eredu bakarra, ikuspegi bakarra denontzat* deritzon politika gainditzeko beharretik sortu zen, gure garaiko beharrei behar bezala erantzuteko. Horregatik, pertsonak dituzten beharretarako pentsatuta dauden zerbitzuei zuzenduta dago, emakumeen eta gizonen gaitasunek gizarte- eta lan-aprobetxamendu hobea izan dezaten. Era berean, benetako aldaketa sustatzen du administrazioek eta erakunde publikoek haien lana ulertzeko duten moduan, eta programa politikoak eta zerbitzuak diseinatzeko eta exekutatzeko duten moduan.

EAJn beharrezkotzat jotzen dugu, duen garrantziaz ohartuta, gogoeta horretan parte hartzea, bere ekimen-eremu osoan, eta beharrezko tresnak lortzea aldaketa hori lortzeko eta bere ezarketa egokia kudeatzeko.

2.- EMAKUMEA, BERDINTASUNA ETA GIZARTE-KAPITALA

Ikerketa askok adierazi dute emakumearen estatusa positiboki erlazionatuta dagoela emankortasun ekonomikoarekin eta gizarte-armoniarekin. Hala eta guztiz ere, adierazpen hori ez da nahikoa oinarrizko arazoa konpontzeko: emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ez da era esanguratsuan murrizten, bi taldeetan ikusten diren aurrerakuntzak gorabehera, emakumeen hezkuntza hobea gorabehera, osasun hobea gorabehera, lanerako sarrera hobea gorabehera, parte-hartze politiko handiagoa gorabehera edo aurrerapen ekonomikoa gorabehera. Emakumeen eta gizonen jokabidea etxean eta bestelako erakundeetan ezartzen dituzten legeak, balioak, arauak eta praktikak ez dira aldatu.

Beharrezkoa da, beraz, analisirako ikuspegi berriak proposatzea, gizarte-arazoen oinarria bideratzeko eta, haien barruan, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun justifikaezinak ere bideratzeko. Bide berriak bilatzeko, ikuspegi ekonomizista hutsen porrota ikusita, gaur egun garapenaren gizarte-alderdiak identifikatuz ari gara aurrera egiten.

Herrialde baten garapen ekonomikoa bere gizarte-antolakuntzan oinarritzen da; beraz, bertan dauden egitura-ezberdintasunei ekiteko gizartea bera eraldatu behar da. Gizarte-kapitalaren kontzeptua garapen-prozesuetan dauden gizarte-indar batzuk analizatzeko agertu zen. Gizarte-kapitalaren analisiak, genero-ikuspegitik, irtenbideak bilatzen lagun dezake, garapenaren onurak banatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. ELGAK (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak), hazkunde eta garapen jasangarriko prozesu batean dagoen giza- eta gizarte-kapitalari buruzko txostenean, honela definitzen du gizarte-kapitala: *“taldeen baitan edo haien artean lankidetzeta errazten duten egiturak eta legeak, balioak eta uste osoak”*.

Testuinguru horretan, emakumeen gaitasuna erabiltzea beharrezkoa da, gizonekin batera guztiontzako helburua lortzeko: gizarte-garapen orekatua. Gizarte-kapitalaren eta generoaren arteko elkarloturak aztertzea gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak zergatik dirauten identifikatzeko lagungarria da. Legeek, balioek, nortasunak eta gizarte-egiturek pertsonen gizarte-egituren naturan eragiten dute eta gizonen eta emakumeen baliabideak eta aukerak izateko duten eskubidea baldintzatzen dute. Emakumeentzat, aukerak ez dira ezinbestean hobetzen hezkuntza edo osasuna hobetean, haien eskubidea legeek, balioek eta gizonen eta emakumeen arteko botere-erlazio ezberdinek baldintzatzen dutelako. Oro har, esan daiteke eginkizun-ezberdintasun hauek, diskriminazioaren oinarri, gizarte-kapitalean sortzen direla; beraz, ezinbestekoa da errealitate hau aldatzea.

Horrela, politikek aldaketa kualitatiboa izan dezaten, EAJk uste du beharrezkoa dela gizonen eta emakumeen portaera arautzen dituzten arauen eremuan lan egitea, modu horretan sustatu beharreko estrategiak berbideratzeko, bai alderdiaren beraren eremuan, bai eremu publikoan.

Zereginak gizartearen alderdirik sentikorrenari eta errotuenari eragiten dio: jokabide-kodeei; horregatik, ez da lan erraza izango. Horri, gainera, aurretik belaunaldiz belaunaldi jaso ditugun gizarte-arauak ez ezagutzea gehitu behar zaio, eta gizarteko hainbat erakunderen mesfidantza ere bai, familiarengandik hasi eta nazioarteko eremuraino, funtzionamendu zehatz batera egokituta daudenez, aldaketak mehatxu gisa hartzen baitituzte.

Diagnosia eginda eta zailtasunak gorabehera, EAJk uste du, aldatu behar dena gizarte-kapitala denez, ekimenen gunea gizartea bera izan behar dela, eta horregatik beharrezkoa izango da gizartearen arauetan aldaketak egingo dituzten estrategiak identifikatzea, emakumeek eta gizonen aukeratzeko eta ekiteko askatasun handiagoa lortzeko.

Horrelako eginkizun bati ekiteko, beharrezkoa izango da gizonen eta emakumeen artean dagoen errealitatea aldatzeko erabaki politikoa hartzea, hau da, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko ekimenak ezartzea, bai politikan, bai taldeen erabaki garrantzitsuak hartzen diren lekuan, era horretan eremu instituzional guztiak barne hartzeko: legegilea, exekutiboa eta judiziala; eta gizartearen oinarriak eta egitura bera aldatzea ere bai. Hori modu eraginkorrean lortzeko, Erakunde bakoitzak eta gizarteko kide bakoitzak eskatzen zaion lana egiteko konpromisoa hartu behar du.

Ekimen hauek beharrezko zeharkakotasuna lortzen lagunduko dute, eta genero-ikuspegiz egindako proiektu eta politika askoren eragina txikitu duten benetako oztopo asko kentzen lagunduko dute.

EAJk uste du emakumeen eta gizonen artean dauden legeak, balioak eta botere-erlazioak aldatu ahal izateko, hainbat prozesu beharrezkoak izango direla:

- Emakumeen eta gizonen parte-hartze paritarioa erabaki-eremuetan, publikoetan zein pribatuetan.

- Berdintasuna hazkunde ekonomikoaren, gizarteratzearen eta egonkortasun politikoaren oinarritzko elementu gisa ikustea.
- Gizarte osoaren elkartasuna lan honetan, gizonena zein emakumeena.

2.1.- Emakumeen eta gizonen parte-hartze parekatua erabaki-arloetan

EAJk emakumeak erabaki-maila gorenetera iristea nahi du, jakinez berdintasun hori ez dela munduko gizarterik aurreratuenetan ere lortu, eta demokrazia osoak, gizarte osoaren interes orokorren elkarbizitzarako modu gisa, batzuk zeion besteak bertan egotea eskatzen duelako, emakumeak eta gizonak, taldeko erabakiak hartzen dituzten organoetan.

Emakumeek eta gizonen oso bizitza-esperientzia ezberdinak dituzte, eremu ezberdinetan moldatzen dira eta erantzukizun eta eginkizun ezberdinak dituzte. Bi taldeen beharrak, asmoak, balioak, etab. kontuan hartzea ezinbestekoa da erabaki politikoetan, herritar guztien interesei erantzuten dion gizartea eratzeke.

Emakumeen parte-hartze sozio-politikoak gai garrantzitsua izan da gure herrialdean sustatu eta garatu diren berdintasun-politiketan, EAJk gobernatu dituen erakundeetan. Horren adibide, Berdintasunerako Legea onartu ondoren Eusko Jaurilaritzako hauteskundeetan lortu den parekotasuna da, estatuko legeak bere lege-eremuan berdindu nahi izan duen parekotasuna.

Alderdiaren barruan, filosofia berean oinarrituta, EAJ lanean ari da barne-eremuko erabaki-organoetan emakumeen parte-hartzea eraginkor egiteko, bai barneko berdintasun-planen bidez, bai horien araudiak aldatuz. Emakumeak hasierako egoeran desabantailan daudela badakienez, EAJk beharrezkotzat jotzen du emakumeen presentzia eta pisu politikoak sustatzea, emakumeak buruzagitzan egon daitezzen lortzeko.

Beharrezkoa da, era berean, emakumeek gizarte-elkarteetan eta mugimenduetan parte hartzea. Zentzu horretan, EAJk administrazioen lana defendatzen du, erabaki politikoak hartzeko herritarrek parte har dezaten lanean ari diren heinean. Herritarren parte-hartzea, hori indartzea, gizarte-egituretan emakumeak eta gizonak elkartrukatzea eta existitzea, gizarte-kapitalaren funtsezko osagarrietako bat da.

EAJk badaki emakumeek erabakiak hartzeko orduan presentzia handiagoa eta kualifikatuagoa ez duten bitartean, haien ezberdintasun-egoerak existitzen jarraituko duela bizitza pertsonaleko eta talde-bizitzako eremu guztietan; horregatik, beharrezkotzat ikusten du sustapena, emakumeen parte-hartzearen igoera hezkuntzan eta ekonomikoki aktiboa den populazioan bermatzeko, baita erabakiak hartzen diren lekuetan ere.

Azkenik, EAJk emakumeek gizarte-bizitza eta bizitza politikoko eremu eta sektore guztietan boterea lor dezaten nahi du –berdintasunean aurrera jarraitzeko ekimen estrategiko gisa–: enpresen eta sindikatuen eremuan, kulturaren, hezkuntzan, lan-eremuan, gizarteratzean, osasunean eta urbanismoan, garraioan eta ingurugiroan.

2.2.- Berdintasuna hazkunde ekonomikorako, gizarteratzeko eta egonkortasun politikorako funtsezko elementu gisa

Gizartearen eraldaketa-prozesu gisa garapenak duen lehentasuna ikusita, generoen arteko ezberdintasuna aztertzea beharrezkoa da, hazkunde-ekonomikoan helburuak, gizarteratzea eta egonkortasun politikoa lortzeko zailtasunak sortzen dituelako.

Gizarte-ereldaketen artean argiena, emakumeek gizartean duten eginkizuna da, eta emakumeak lan-merkatuan pixkanaka sartzean gertatu den aldaketa, eta haien jarraitutasuna, familia bat sortu eta mantentzearekin batera. Baina hori ez da emakumeekin lotuta jazo den aldaketa bakarra edo garrantzitsuena. Lan-merkatuan parte hartzea askoz eraldaketa handiago baten adierazpena da, eta eraldaketa horrek emakumearen estatusari eragiten dio, eta bere erlazio-eremu ezberdinei: bikoteari, familiari, lanari, politikari, eremu legalari eta eremu judizialari.

Emakumearen estatusaren aldaketa onartzea, eginkizunen eboluzioa eta erlazio-eredu berria, berdintasunean oinarrituta, horren ondorioz ezarrita, ez da era berean gertatu bikoteko bi kideentzat, berdintasun ezan oinarritutako kultura-eredu batetik datozelako. Gizon askok, jatorrizko familietan jarrera-mota batzuk ikasi badituzte, ez dute aldaketarik nahi eta egungo familiekin jarrera berak errepikatzen dituzte. Emakumeek ere zama kultural bera daukate eta ahaleginak egiten dituzte, oreka bilatzen saiatzen dira, haien eskakizunen itxaropenen artean eta pixkanaka eredu berrirako moldaketa onartu behararen artean.

Errazagoa da berdintasuna teorian onartzea, praktikan ipintzea baino. Jarduerari eta garapen profesionalari uko egiteak horrela dela erakusten dute, eta batez ere emakumeek hartzen dute bere gain. Bikoteko bi kideek ordaindutako lana egiten duten kasuetan, etxeko lanen banaketa oso desorekaturik dago, eta emakumeak ia guztiaz arduratzen dira.

Lan emankorraren antolaketak ere bilakaera bat du, baina ez lanekuaren osaketa ezberdinaren arabera, emakumez eta gizonez, ezta beharren arabera ere. Enpresa-kulturak erantzuten jarraitzen dio gizon langileen eredu bati, ardura osoarekin eta familien beharrek bateraezinak diren ordutegiak. Gainera, ekonomiaren mundializazioa eta esku-hartzea eboluzio desegokia ari dira ekartzen lan-antolaketan, esate baterako arratsaldeko eta gaueko txandak, komertzioen ordutegiak handitzea, lan-kontratuen dibertsifikazioa –lan-formula atipikoen igoera garrantzitsua dakarrena–, etab; guztiak bizitzaren eta familiaren antolaketa are zailago egiten duten gaiak dira.

Gai horien guztien ondorioa langileek bizitza pertsonala, familiakoa eta profesionala orekatzeko duten gero eta zailtasun handiagoa da. Askotan, egoera honek familia-gatazkak sor ditzake, eta horrek hainbat motatako ondorio negatiboak ekar ditzake. Maila pertsonalean, eragina dauka osasun mentalean zein fisikoan, familiarekin egoteko denbora murrizten du, eta bikotearen eta familiaren erlazioa okertzen du, gerora seme-alaben garapenean ondorio negatiboak dituen.

Bestalde, egoera honek lan-ingurunean ere baditu ondorio garrantzitsuak. Gero eta enpresa gehiagok dakite lanaren eta familiaren arteko gatazkak estresa eragiten duela, eta lanean pozik ez egotea, absentismoa, ekoizpen txikiagoa eta lanerako konpromiso txikiagoa, langileen mugimendua eta galera, etab.; horrek guztiak enpresarentzat dituen ondorio negatiboekin batera.

Aipatutako tentsioek ere gizarte-ondorio negatiboak dituzte. Adierazpenik nabarmenenak honakoak dira: ugalkortasun-tasak jaitea, eta emakumeek lanean hasteko, mantentzeko eta sustatzeko dituzten zailtasunak –oraindik ere existitzen direnak–. Bi gertakari hauek egotea, lanerako gai den populazioaren zahartzearekin eta urritasunarekin batera, beste zeozer eragin dute, hau da, gizarte-antolaketa berria bilatzea guztion intereserako xedea izatea eta gizarte-egitura guztiaren aldarrikapena izatea.

EAJk ezagutzen du beharra, eta premia ere bai, pertsonen, familien eta ingurune emankorren interesak eta beharrak bateragarri egitea ahalbidetuko duten neurriak hartzeko. Funtsean, garapen ekonomikoa eta gizarte-ongizatea bateragarri egitean datza. Lehenengoak zentzua galtzen du bigarrenarekin batera ez badator. Biek batera egon behar dute garapen jasangarria lortzeko.

Era berean, bizitza pertsonala, lanekoa eta familiarena bateragarri egiteko beharraren zentzua hedatu behar da, eta “gizarte-antolaketa berria” defendatu, garrantzitsuena bizitzaren maila ezberdinen harmonian oinarritutako ereduan bidea egitea delako, era horretan gaur egungo egoera saihestu ahal izateko, hau da, maila guztiak maila baten inguruan ipintzea saihesteko: lanaren inguruan.

Eredu berri honek etxeko lanak eta zainketa-lanak behar den neurrian balioetsi behar ditu, ezinbestekoa baita gure gizarteak funtzionatzeko, ugaltzeko eta mantentzeko; eta lanaren banaketa orekatuan oinarritu behar du, gizonek eta emakumeek etxeko lanak, zainketa-lanak eta lan emankorra modu berean banatu ditzaten, gizarteak mantentzeko eta garatzeko behar duen lanari behar den denbora eta gizarte- eta ekonomia-balioa ematen diolarik.

Eskumenak dauzkagun administrazio eta sektore guztietatik, EAJn gure gain hartzen dugu bizitza pertsonala, familiarena eta lanekoa bateratzea errazten duten politikak sustatzeko eta garatzeko konpromisoa, batez ere hiru neurrien bidez: lan-egiturak bizitza pertsonalaren eta lan-bizitzaren beharretara egokitzea, zerbitzu soziokomunitarioak egokitzea eta gizonen erantzukizuna sustatzea etxeko lanetan.

Lan-baldintzak. Gai honi dagokionez, beharrezkoa izango da malguketa eta berrantolaketa lortzeko ereduak bilatzea, eta lan-utzialdiak, baimenak eta lanegun-murriztapenak dituzten langileen laguntzarako programak hobetzea, era horretan etxeko beharrez arduratzeko eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zainketaz arduratzeko.

EAJk badaki gure herrialdean bateragarritasuna laguntzeko proposatu ziren neurriak, hasieran, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politiken eremuan, ez zirela onuragarriak izan gizarte osoak uler zitzan. Beraz, beharrezkoa da egoera hori kontuan hartzea neurri zehatzak diseinatu eta abian ipintzeko orduan, esate baterako baimenak, lanegun-murriztapenak, lan-utzialdiak, etab. Oraindik ezberdintasun-maila handia, behin-behinekotasun handia eta ordainsari txikia, etab. duen lan-merkatu batean, neurri horiek abian jartzeak ezberdintasuna are gehiago indar dezake, eta emakumeei aukera profesionalak galeraztea eta haien kontratazioa gelditzea, enpresariei neurri horiek aplikatzea zailegia egiten zaielako.

Zerbitzu sozio-komunitarioak egokitzea. Dagoeneko ezarrita dagoen ibilbide bati jarraituz, EAJk esku-hartze komunitarioaren alde egiten du, pertsonen eskubide indibidualen ikuspegitik zerbitzu soziokomunitarioak birplanteatzea nabarmenduz, bai pertsona zainduena bai zaintzaileena, emakumeen estatus eta eginkizun berrietatik ondorioztatzen diren bateratze-beharrak ahaztu gabe. Egokitasunez erantzuteak honako hau eskatzen du: administrazio kudeatzaileen arteko lankidetzeta handia, zerbitzuen ordutegiak eta egutegiak berrikusi eta zabaltzea, behar pertsonalak, familiarenak eta sozialak aldian behin berrikustea, eta arreta-programak hitzartzea, egoera bakoitzean barruan dauden pertsonekin negoziatuz.

Erantzunkidetasuna. Emakumeak, gizonak eta umeak ikasteko, lan egiteko eta pertsona gisa etorkizun bat garatzeko hezten ditugu. EAJk uste du ahalik eta haurtzarorik goiztiarrenetik hasi behar dela lanean hezkuntza-prozesuei beharrezko ezagutza gehitzeko, gerora ikasleek egungo eta etorkizuneko beharren ardura har dezaten, etxeko lanetan eta pertsonen zainketan. Era berean, instituzioek kontzientziazio- eta sustatze-lana egin behar dute gizonak etxeko lanen erantzukizuna har dezaten eta pertsonak zain ditzaten, eta lan-baldintzei buruzko legeek eremu horretan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak barne har ditzaten.

2.3.- Gizarte osoaren aliantza eraikitzea, gizonena eta emakumeena

Gizarte-eraldaketa lortzeko emakumeen eta gizonen arteko elkarlana beharrezkoa da. Beharrezkoa da gizonak eta emakumeak aldaketa-prozesu horren barruan sartzea.

Aldatu nahi duguna gizonen eta emakumeen arteko erlazioak direnez, funtsezkoa da aldi berean lantzea maskulinitate- eta feminitate-gaiak, gizonen eta emakumeen tradizionalki gizartean izan dituzten eginkizunak eta bien eta gizarte osoaren etorkizunerako ikuspegiak. Gai hori garatzea beharrezkoa da gizarte-kapitalean beharrezko aldaketak lortzeko.

Berdintasun-erlazioetan oinarritutako gizarte-eredu berria soilik eraiki ahal izango dugu herritar guztiek prozesu horretan parte hartzen baldin badute. Horregatik, gaitasunak indartzeaz eta emakumeek boterea hartzeaz gainera, EAJk formulak eta espazioak bilatu nahi ditu, gizonen, indibidualki zein kolektiboki, gaur egungo sistema patriarkalaren justiziaz, legitimitateaz eta jasangarritasunaz gogoeta egin dezaten, emakumeek subordinaziozko egitura-egoeratik ateratzeko.

Patriarkatua hitz antropologikoa da, eta gizarte bateko gizonen botere-karguetan nagusitzeko duten egoera soziologikoa definitzeko erabiltzen da; kargu hori zenbat eta boteretsuagoa izan, orduan eta aukera gehiago egongo dira gizonen botere-kargu hori mantentzeko.

Askotan, emakumeen estatus eta eginkizun aldaketa gizarte-iraultza balitz bezala hartzen da, iraultza industrialak izan zuen eraginaren pare. Garrantzia hori oraindik zalantzazkoa da iraultza horretan. EAJk uste du gizonen nortasuna eta gizarte berrian gizonen zeregina eraikitzean dauden aldaketek, iraultza honen arrakastari lagunduko diotela eta gaur egun gure erlazio pertsonaletan, familiakoetan eta sozialetan dauden tentsioak gaitzen lagunduko dutela.

Azkenik, inguru orokorretik aztertutako prozesuez gain, beharrezkoa da eremu legalari eta instituzionalari ekitea; eta kontuan hartu behar da lege aurrerakoiek konforme ez egotea eragiten dutela, legearen eta erralitatearen artean ezberdintasunak daudelako, baldin eta portaera diskriminatzaileak aldatzeko erabaki politikorik hartzen ez bada. Horregatik, EAJk ekimen espezifikoak bultzatu nahi ditu, gizonen eta emakumeen zuzenduta, antolakuntzarako gaitasuna indartzeko, erakundeetan kultura berri bat eraikitzeko eta gizarte-egituran aldaketa hauek eragingo dituzten aktibo berriak sortzeko.

III.- GIZARTE-MUGIMENDU BERRIAK ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA

1.- GIZARTE MUGIMENDU BERRIAK

1.1.- Agertzen ari den errealitate berria

2004-2008 legegintzaldirako EBBren ekintza-planean zehazten zen bezala, azken urteotan gure gizarteetan gizarte-antolakuntza berriak agertzen ari direla ikusi dugu, “gizarte-mugimenduak” deitu ditugunak. Tradizionaletatik bereizten dira aldarrikapen zabalagoak dituztelako, gizarte-kezkak dituzten pertsonen zati handi bat barne hartzen dutelako, aldaketa nahi dutelako –gizarte-ereduan, Iparraldeak Hegoaldearekin duen erlazioan, herrialde aberatsek txiroekin dituzten erlazioetan...–, eta planetako biztanle guztien aukera-berdintasunaren alde borrokan dihardutelako.

Erakunde hauek, berdin elkarteak edo GGKEak (Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeak) izan, balio altruistak dituzte, balioen eskalan eta gizarte funtzionamenduan aldaketak egitearen alde daude, eta gizarte sentsibilizatzeko egiten duten lanaren bidez kezka hauek Erakundeetan eta politika-, ekonomia- eta gizarte-botereen agendan sartzea lortu dute.

Euskal gizarteak gertakari honetan parte hartzen du eta azken urteotan mota honetako elkarte eta erakunde berri asko ikusi ditu.

Mundu mailako gertakari honen harira, gero eta eragin handiagoa duten plataformak eta Foroak osatu dira. Munduko Gizarte-Foroa, bere ondoan egon diren foro erregional, nazional eta tematikoekin batera, erakundeetan eragina izatea lortzen ari da. Gizarte-foroak dira. Alternatibak eraikitzeke sortutako foroak dira, haien bileretan mundu guztiko gero eta erakunde gehiago parte hartzea lortu dute. Foroak herrialde txiroetako eta aberatsetako agenteen arteko gogoetan, eztabaidan, ideien elkartrukean eta esperientzietan oinarritzen dira, eta horrek mundu mailako esperientziak ezagutzea ahalbidetzen du, eta proposamenen sorburu bihurtzen da.

Proposamen horiek eskaera konkretu bihurtzen dira gero, eta azkenaldian erakunde tradizionalak eta instituzioek bere egin dituzte, askotan haien programetan sartuz; ikusi gure gobernuaren jarduerara gehitzen ari garen gaiak, esate baterako banku etikoa, lagundutako garapena, mikrokredituak, zorra kitatzeko moduak, etab.

Gizarte mobilizatzeko modu horiekin batera, gizartearen zati handi bat alden egiten dela ikusi dugu, batez ere gazteak eta erakunde tradizionalak, eta guri dagokigun kasuan, alderdi politikoak.

1.2.- EAJren parte-hartzea gizarte-errealitate berrietan

Agirre Lehendakariak grafikoki esaldi batean –“*guztian present, baita Suhiltzaileen Kongresu batean ere*”– adierazten zuenarekin bat eginez, pasa den mende erdialdean erbesteko EAJ European agertzen ari ziren errealitate askoren sorreran egotera eraman zuena –mugimendu demokristaua edo mugimendu europarra–, EAJk, euskal gizartean jazotzen diren aldaketei adi, errealitate berri hauek barneratu eta haietan aktiboki parte hartu behar du.

Gizarte berriaren interesei eta eskariei adi dagoen jarrera honek ahalbidetuko digu gizarte-errealitate berriekin kontaktuan ipintzen, haien proposamenekin, maila guztietako gizarte-eztabaidaren zentzua ezagutzen, parte hartzaileekin eta gizarte-egiturekin kontaktu etengabea egoten, bai toki-mailan bai nazioartekoan. Era berean, foro hauetatik ateratzen diren ideiak eta ekarpenak gure jarduera politiko eta instituzionalera zuzenean eramatea ahalbidetuko digu, bitartekorik gabe. Foro horietan EAJk osatzen dituen gaiak eta jarrera antolatzen ere lagunduko digu.

Pertsona zehatzen bidez edo gobernatzen dituen Erakundeetako ordezkartzen bidez, EAJk gizarte-eztabaidako modu berri honetan parte hartzen duenez, beharrezkoa da borondatezko parte-hartzetik instituzionalizatutako parte-hartze batera igarotzea, horrela alderdi guztia esperientzien, lanaren eta ezagutzaren partaide egiteko, gaiak eta ekimenak era sistematikoan bideratzeko, eta aipatutako helburuak lortzeko.

2.- GARAPENERAKO LANKIDETZA

2.1.- Sarrera

Garapenerako nazioarteko Laguntza beti izan da errealitate bat Euskal Herrian, eta gaur egun Euzkadin, ondo errotuta egoteaz gain, berezko araudia dauka, 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.

Atzera-begirakoa emanez, euskal lankidetzak bizitza-konpromisoa hartu zuten euskal herritar guztiak eta haien nortasunaren ezaugarrikerik ederrenak Euzkaditik kanpo eraman zituzten euskal herritar guztiak omendu behar ditu, erakunde publikoek beste herriak laguntzeko beharraz jabetu baino lehen konpromisoa hartu zuten euskal herritar guztiak.

Pertsona haiek, arrazoi erlijiosoek, humanistek, politikoek edo etikoek bultzatuta, lehen harria ipini zituztenak izan ziren, eta gerora Euzkadin nazioarteko lankidetzaren mugimendua sortu da horretan oinarrituta.

Egun, Euzkadin, lankidetzaren irrimo finkatutako errealitatea da. Lehen ahalegin haiek, administrazioen konpromiso puntualak edo sinbolikoak sortzen hasi zirenak, elkartasun-politika publikoa eragin dute, ia-ia ezin utzizkoa erakunde eta sentsibilizazio politiko guztientzat.

Hastapen haiekin aurrera, gure gizartean gizarte-egitura osatuz joan da, aniztasunean oinarrituta, garapenerako lankidetzari eskainia, eta gaur egun heldutasun eta gaitasun nahikoa duela egiaztatu du. Hain zuzen ere, haren ekimenek, aldarrikapenek eta gizarte zibilaren lankidetzak, garapenerako lankidetzaren alorreko politika publikoak oso azkar haztea ekarri du, euskal erakunde publikoen laguntzaz.

Euzkadin, garapenerako lankidetzaren publikoa laurogeiko hamarkadan sortu eta bere bide propioa egiten hasi zen, eta laurogeita hamarreko hamarkadan zabaldu eta heldutasunera iritsi zen. Ibilbide hori oso modu grafikoan ikusten da lankidetzarako urteroko aurrekontuetan; bertan, ahalegin publikoak etengabe hazteko duen joerak borondate politikoa islatzen du –herritarrengan eta erakundeetan dagoen borondatea–, elkartasunaren eremuan gure erantzukizuna indartzeko.

Garapenerako lankidetzaren, beste gai askotan bezala, euskal erakundeek gizarte-errealitate nabarmena egituratzen dute. Errealitate horrek beharrezko konfiantza ematen die euskal erakundeei, eta erakunde horietatik espero dira eraginkortasun-emaitez onenak; horretarako kontuan hartu behar da garapenerako lankidetzaren Euskal Herriari kanpo-harreman paradipomatikoetarako ematen dion interesen errealitatea.

Euskal lankidetzaren ez du emariak itzultzerik nahi, ezta lankidetzatik kanpo dauden interesen araberrako interbentzionismo politikorik ere, baina euskal herritarren estaturik gabeko Herria garen heinean, nazioarteko lankidetzatik datozen sinergiak aprobetxatu behar ditugu ahal beste prozesu eta errealitatean present egoteko. Gainera, ez dugu ahaztu behar garapenerako lankidetzaren nazioen nazioarteko jardueran eremurik aktiboena osatzen duela, eta beraz ekimenak eta proiektuak sustatzen dituela nazioarteko ordena zuzenagoa eraikitzen laguntzeko eta gizateria osoarentzako mundu hobea eraikitzen laguntzeko.

Hori guztia, EAJk lankidetzaren alde egiten duela nabarmenduz –kudeaketaren eraginkortasun etengabearen hobekuntzazatik nabarmenduz den lankidetzaren alde–, eta helburuak lortzen laguntzeko ekimen estrategikoak bultzatuz. Elkarlanean ari diren komunitateen eta herrien arteko topagunea sustatu beharko du, historikoki gure herria munduan zehar definitu duten balio etikoak partekatzeko.

Iritzi hori bereziki aproposa da etengabe garatzen eta aldatzen ari den egoera batean. Beharrezkoa da zalantzei aurre egitea, eta gure elkartasuneko memoria historikoa era egokian gaurkotzea.

2.2.- Garapenerako Lankidetzarako Eredua propioa

2.2.1.- AURREKARIAK.-

2004-2007 legegintzaldirako Euzkadi Buru Batzarreko Ekintza Planean, mende hasiera honetan bizitzen ari garen gizarte-aldaketa eta aldaketa politikoaren diagnostika egiten zen, globalizazioaren ondorio praktikoaren eta munduko ezberdintasunaren diagnostika, eta aberastasuna banatzeko orduan gero eta handiagoa den zuloaren diagnostika.

Egoera horren aurrean, Nazioarteko Komunitatea erantzuten saiatu da, Nazio Batuen gidaritzapean. Horrela, 2000. urtean ospatutako Milurtekoaren Bileran, Milurteko Helburuak finkatu ziren, eta 2015erako munduan dauden ezberdintasunak murrizteko helburuak zehaztu ziren.

Zehazki, xedeak zortzi dira:

- Muturreko pobrezia eta gosea ezabatzea.
- Guztiontzako oinarritzako hezkuntza lortzea.
- Generoen arteko berdintasuna eta emakumearen autonomia sustatzea.
- Umeen heriotza-tasa murriztea.
- Amaren osasuna hobetzea.
- GIB/HIESAri, paludismoari eta beste gaixotasunei aurre egitea.
- Ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzea..
- Garapenerako mundu-elkartea sustatzea.

Milurtekoko Deklarazioa sinatu duten herrialdeek laguntza eraginkorra emateko konpromisoa hartu dute, eta kanpo-zorra era jasangarrian murrizteko eta merkataritzarako arau bidezkoagoak ezartzeko konpromisoa ere; hori guztia, 2015. urtea amaitu baino lehen lortu beharko da.

Herrialde aberatsek konpromisoa hartu dute urtero haien Barne Produktu Gordinari (BPG) %0,7 laguntza gisa emateko. Gaur egun soilik Europako bost herrialdek betetzen dute konpromiso hori (Suediak, Norvegiak, Holandak, Danimarkak eta Luxemburgok). Beste bost herrialdek data zehatz baterako %0,7 hori lortzeko konpromisoa hartu zuten (Irlandak 2007rako, Belgikak 2010erako, Frantziak eta Espainiak 2012rako eta Erresuma Batuak 2013rako).

EAE, eskumena duen neurrian, Milurtekoko Deklarazioari atxiki zitzaion 2004. urtean, eta horrek ahalbidetu zion Euzkadiri garapenerako nazioarteko itunean

parte hartzea eta deklarazioaren balioak eta haren zortzi xedeak lortzen laguntzeko konpromisoa hartzea.

Atxikimendu hori ez da ekintza bakarra. Euskal Herriak historian zehar eta garai berriagoetan erakunde demokratikoek izan duten elkartasun-konpromisoan oinarritzen da, garapenari eskainitako lankidetzaren deszentralizatu bihurtu diren arte. Hala eta guztiz ere, euskal erakundeek garapenerako lehen lankidetzaren programak ezarri zituztenetik bi hamarkada baino gehiago igaro diren honetan, gaur egun Euzkadin lidergoa galdu da eta sektorea finkatzea falta da.

Heldutasun-puntu honetara iritsita, EAJk uste du beharrezkoa dela Euzkadiko gobernuaren esperientzia eskaintzea beste herrien garapen-laguntzetara, eta horretarako lankidetzaren eredu bat proposatzen du, azpigarapenaren benetako arrazoiei aurre egiteko, herrialde horientzat etorkizun duin baten oinarriak finkatzeko eta herrialde pobreak haien garapenaren bultzatzaile egiten eraginkorrak izateko.

2.2.2.- EAJ-REN ELKARTASUN-KONPROMISOA GAUZATZEA

Elkartasuna eta gizarte-kezka betidanik egon dira present EAJren historian, ikuspuntu ideologikotik, jatorri kristaueko humanismotik eta bere jatorri demokratikotik.

Garapenerako laguntzaren eremuan, azken hamarkadetakako esperientziak erakusten digu testuinguruz kanpo emandako laguntzak, “putzu bat hemen, eskola bat han”, ez dituela baldintzak sortzen herri hauek azpigarapenetik ateratzeko. Hirugarren mundua beste herrialde batzuek egindako proiektuz beteta dago, azkenean garatu ez ziren proiektuz beteak, eta gaur egun haien karkasak besterik ez dira geratzen.

Horregatik, EAJren elkartasun-konpromisoari alde instituzionaletik eta sozialetik ekin behar zaio, eta ikuspuntu kuantitatiboa (garapenaren aldeko eskumenak gauzatzea, herrialde txiroen alde) eta kualitatiboa (herrialde txiroei haien garapenaren bultzatzaileak izaten lagunduko dieten lankidetzaren ereduak ikertu eta proposatu) izan behar ditu.

Garapenerako lankidetzaren kopurua. Gure Herrialdeak Nazio Batuekin batera hartutako konpromisoa BPGren %0,7 herrialde txiroekiko elkartasunari eskaintzean datza. Horrek euskal Erakunde bakoitzari egutegi bat egitea eskatzen dio, urtez urte xedeak betetzeko, era horretan, zentzuzko epe batean (2010 eta 2015 urteen artean) konpromiso hori guztiz betetzeko.

Garapenerako laguntzaren kalitatea. Gure elkartasun-politiketan eraginkortasun handiagoa lortzeko helburuarekin batera, EAJk hainbat ekintza egiteko prest dago, euskal lankidetzaren kalitatea hobetzeko.

Erakundeen eta gizarte-egituraren bidez, azken hamarkadetan Euzkadi krisi-ekonomiatik eta arriskuan zeuden hizkuntza eta kultura batetik atera da, eta planetako eremurik garatuena izatera iritsi da, eta hizkuntza eta kultura gutxituak dituzten herrientzat erreferente izatera iritsi da, haien berezitasun kulturala biziberritzeko eta modernizatzeko estrategiak garatzeko, haien hizkuntza eta kultura eskolara, komunikabideetara, unibertsitatara, mundu globalizatura eramateko.

Euzkadik beste herriekin konpartitzeko duen esperientziarik onenetariko bat, garatutako herrialdeen abangoardian kokatzen jakitean datza, mundu globalizatu batean nortasuna babesten aurrera egiten duen aldi berean.

Lankidetzaren beharra duten herri gehienek, herri txiroek, haien etorkizunaren jabe egin behar dute, estrategietan parte hartu, gai hauetan “egiten jakin” behar dute –bizitzeko oinarrizkoak diren azpiegiturak eta zerbitzuak behar izateaz gain–; EAJk eta berak zuzendutako erakundeek arrakastaz egiten duten eta egin duten “egiten jakin” hori.

EAJk uste du Euzkadik herrialde gisa egin dezakeen lankidetzaren oinarria honakoan datzala: esperientzia konpartitzean, denboraren poderioz gure nortasuna babesteko garatutako estrategietan, gure hizkuntza eremu publiko eta instituzionalera eramatean, gure ekonomia berreskuratzeko lanean eta gure herrialdea mundu globalizatu batean kokatzean.

Lankidetzari dagokionez munduari eman ahal diogun ekarpenik onena eta handiena herrialde txiroei laguntzea da, haien aberastasun eta baliabide naturalen subiranotasuna mantendu dezaten, komunitate osoaren intereserako.

Kultura, hizkuntza, nortasuna babesteko konpromisoa. EAJk uste du nazioarteko testuinguruan elkarrekin zerikusia duten hiru prozesu daudela: sozioekonomikoa, kulturala eta ideologikoa. Prozesu horietako bakar bat ere ezin da besteen laguntzarik gabe ulertu. Pertsonen degradazio sozioekonomikoa, herrien degradazioa eta indigenen nortasunen edo nortasun lokalen degradazioa, eta naturaren degradazioa, beti doaz elkarrekin. Haiek berreskuratzeko lana ere elkarri guztiz lotuta dago.

Ohikoa da lankidetzahaleginak taldeen garapen sozioekonomikoan oinarritzea eta, konturatu ere egin gabe, batzuetan, asimilazio- eta akulturazio-prozesuen zati izatea (prozesu honen bidez, herri batek edo gizatalde batek kultura berri bat hartzen du, edo kultura berri baten zatiak, orokorrean haien kulturaren kalterako eta nahi gabe. Kanpo-arrazoi tradizioaletako bat kolonizazioa izan da).

Gaur egun, munduko komunitate eta herri askok nortasuna galerazten dieten prozesu erabakigarriak bizi dituzte. Garapenaren ideia sakonetik, EAJk beharrezkotzat jotzen du elkarrekin lotzea alde batetik garapen sozioekonomikoa, garapen kulturala eta garapen ekologikoa, eta bestalde batetik herrien berezko idiosinkrasia, bizimodua eta habitata mantentzeko eskubidea,

betiere balio unibertsalak errespetatuz –pertsonaren duintasuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, hezkuntzarako eskubidea, etab.–.

EAJk beharrezkotzat jotzen du:

- Euskal kodeko ekarpena sustatzea, nazioarteko ordena berria eraikitzeko, estaturik gabeko nazioek, herri indigenek eta gutxiengoek osatzen duten benetako munduan errotuta.
- Autogobernuaren eremuko esparruen egokitasuna sustatzea, deszentralizazio, subsidiariorotasun, parte-hartze eta gobernu onaren printzipioak ezartzeko.
- Nazioarteko esparru berri baten beharra defendatu, gizon eta emakume guztien giza-eskubideak, eskubide indibidualak eta talde-eskubideak babesteko eta bermatzeko gai izango dena, baldin eta gizon eta emakume horiek kultura bizien partaide badira, berdin nazio-estatuaren zati izan edo naziorik gabeko estatuaren zati izan.

Buruzagi demokratiko berriekin lankidetzan aritzea, haien gobernu-proposamenak egikaritzeko. Nazioartean klase txiroek boterea lortzeko duten aukeraren kontzientziarioa gauzatzen ari gara. Modu horretan, gobernu lokal eta nazionaletan gizarte-mugimendu eta mugimendu politikoak ari dira sartzen; orain arte gobernutik baztertuta egon direnez, era guztietako erreferentziak falta zaizkie haien proposamen politikoaren bidez defendatu zuten aldaketa gauzatzeko.

Herri hauetako askok gaur bizi dituzten ezaugarriak eta une historikoa hauexek dira: txirotutako gizarteak, ekonomia jasangarriak garatzeko estrategientzako erreferenteen beharra dutenak, kultura eta nortasun ezberdineko gizarteak, kolonizazioak inposatutako kultura zapaltzailea dutenak, eta bertako kulturak, hizkuntzak eta nortasunei balioa emateko, sustatzeko eta garatzeko erreferenteen beharra daukatenak. Trebakuntzarako, giza-baliabideak osatzeko behar handia daukaten gizarteak, aurrera egiteko eta herritarrak azpigarapenetik ateratzeko, eta hezkuntza-politikan erreferenteen (know-how) beharra daukatenak, ekonomia emankorra sustatzeko eta indigenen berezko nortasunari balioa emateko eta integratzeko.

Gauzak egiteko esperientzia transmititzea, nortasuna babesteko eta aldi berean txirotasunetik ateratzeko, ezin du mundu guztiak egin. Pertsonen bidez, antolakuntzaren bidez eta erakundearen bidez, EAJk buruzagi horiekin batera lankidetzan aritzeko gaitasun handia dauka, eta ezinbesteko ezagutza emateko gaitasuna ere bai, haien proposamen politikoak bideratzeko, bai ekonomiaren, hezkuntzaren, hizkuntzaren edo kulturaren eremutik.

Horregatik, herrialde horiei ematea beharrezkoa den lankidetzarako diru-laguntzekin batera, EAJk beharrezkotzat jotzen du herri horietako buruzagiekin batera lankidetzan aritzea, tresnak eta beharrezko ezagutza helarazteko, herrialde hauen garapen ekonomikorako, sozialerako eta kulturalerako

proposamenak bideragarriak izan daitezen, eta lankidetzan arituz gizarteak berak eta buruzagiek haien aurrerapen propioa lor dezaten.

Lagundutako garapenera hurbiltzea. Lagundutako garapena lankidetzamota bat da, non herritar emigratzaileek, haien jatorrizko herrialdeetan, garapenbektoreen balioa duten.

Etorkinen etorrerak herrialdeak ezagutzeko aukera eskaintzen digu, agindu ditugun lankidetzafuntsak bideratuko ditugun herrialdeak, hain zuzen ere. Horrela, zuzenean jakingo dugu, haien nazionalen bidez, herrialde haietan dagoen benetako egoera, egitura sozioekonomikoak eta politikoak; eta, behar izatekotan, garapenerako lankidetzapartekatunahi duten agenteak edota buruzagiak dauden jakingo dugu, eta etorkinek haien jatorrizko herrialdeekikogarutzen dituzten ekimenetan parte hartu eta indartu.

EAJk uste du interesgarria dela sakontzea inmigrazioaren sorburu diren herrialdeen ezagutzan, haien ordezkarien eta gizarte-egituraren ezagutzan, Euzkadin dagoen inmigrazioarekin eta munduan dagoen diasporarekin harremanetan jarriz, horrela herrialde haietako garapenerako lankidetzahobetzeko.

Garapenerako eta sensibilizaziorako heziketa. EAJrentzat garrantzitsua da garapen jasangarriaren printzipioak, balioak eta praktikak heziketaren eta ikasketaren alderdi guztietan integratzea. Jokabidean beharrezko aldaketak sustatzeko lan egitea, etorkizunean ingurunearen osotasuna eta ekonomiaren bideragarritasuna babesteko, eta gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldiek gizarte-justizia izan dezaten.

Xede horiek lortzeko gure gizartean benetako kontzientzia eragin eta sortu behar da, eta bereziki belaunaldi berriei bide berriak eskaini, munduko errealitatea, ezberdintasunak eta horien arrazoiak ezagutu ditzaten, eta horri aurre egiteko bideak topa ditzaten. Gure herritarrak arazoaren, arrazoiaren eta irtenbideen partaide egin, axola izan dezaten eta beharrezko aldaketekin bat egin dezaten, gerora mundu bidezkoago baten aldeko borrokaren partaide izateko, aukera-berdintasunak dituen mundu baten aldeko borrokaren partaide.

Konpromisoaren bideragarritasuna: egiturak eta ahaleginak koordinatzea. Aipatutako xedeak lortzeko, herrialde gisa garapenerako lankidetzageraginkorra eta kalitatezkoa gauzatzeko, EAJk garrantzitsu ikusten du Euzkadik bere ahaleginak koordinatzea, erakundeen mailan, elkarte-egituraren mailan eta nazioartean.

Horretarako, beharrezkoa da hurrengo alderdiei ekitea:

- Erakunde- eta gizarte-maila guztien arteko koordinazioa eta lankidetzalankidetzaproiektuetan eta -programetan irizpideak bateratzeko. Ahaleginak batu eta bikoiztasunak saihestea.

- Euskal administrazioei giza-baliabideak, baliabide materialak eta beharrezkoak diren egiturak ematea, nazioarteko elkartasunera bideratutako aurrekontu-ahalegina kudeatzeko.
- Euskal administrazio publikoaren, pertsonen, gaitasunen eta ezagutzen konpromisoa inplikatzeko eta egituratzea, lankidetzako, funtzio publikoko, heziketako, osasuneko, industriako... prozesuei begira, garapenaren ezagutza eta esperientzia bideratuko duten heinean. Administrazioei baliabide eta ahalegin horiek bideratzen lagunduko dieten mekanismoak ematea, erakundeek garapenarekiko duten konpromisoaren barruan.
- Euskal elkartasuneko politika publikoak nazioartean egiten ari diren politikekin koordinatzea, eta bereziki Organismo Multilateralek aipatzen dituzten politikekin, Nazio Batuen sistemaren Agentzietatik aipatzen dituzten politikekin edo Milurteko Xedeak lortzearekin zerikusia duten politikekin.
- EAJren eta EAJk ordezkariak duen administrazioen arteko eta euskal elkarte-egituraren arteko erlazioa eta interlokuzioa sustatzea, erlazioetan gardentasuna, konfiantza, elkarrekiko errespetua eta elkarlana sendotu daitezkeen, lankidetzaren xedeak lortzeko onuragarriak diren zereginetan.